

uk

84. zenbakia / 2005 uztailak 3



uztailaren 10ean Argia 2000. zenbakira helduko da



2000
ARGIA
independentzia

Harpidetza eskaintza: uztailaren 7tik 17ra **100 €**

Izen-abizenak:

Helbidea: Posta kodea: Herria:

ARGIA Industrialdea, 15 | 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) · © 943 371 545 · harpide@argia.com · www.argia.com

«Zekena, eguzkia balitz, denok illunpian» Euskal esaera zaharra

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Maria Kristina parkeko kale-argia. Mikel Martinez.
6. PLAZA. Leihatila, Maddi Albizu. Eusko Alkartasuna. Photoshop.
7. LEHEN ETA ORAIN. Algortako Basagoiti etorbidea.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
9. ERRETRATUA. Txiki *The Image*koa, Asier Mentxaka.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Jaietako pegoiak, Getxoko Udal Liburutegia.
26. ERREPORTAJEA. Erdi Aroko azokak, Unai Brea.
28. ARGAZKIA. Portu Zaharrea (2004), Mikel Martinez.
30. BERBETAN. Ainhoa Arteta, U. B.
34. FOTOGRAFIA. Leioako ospitalea, A. M.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. Gaurik laburrena.
43. MUSIKA. Standard taldea. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Elkar liburudenda berria. Liburuen erreseinak.
45. KIROLA. Getxoko emakumezko boxeolariak.

EUSKARAZ

46. ELKARRIZKETA. Gorizko Xurut, Unai Brea.
47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardacaren gaineko lezioa. Nora joan? Esaterako, Getxoko Garai kafetegira.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Berangoztarrak Sopelanan, 1958.
54. AITORMENAK. Ramon Garcia, Jon Urresti.

Azaleko argazkia: Leioako ospitalea, 2005 (Asier Mentxaka)



30 Ainhoa Arteta

Berbetan


Bel canto deitzen duten mundua konkistatu duen gipuzkoarra UK-ko orrialdeetara ekartzea lortu dugu. Goza ezazu elkarrizketa.



12 Jabi Baraizarra



43 Gorizko Xurut



20 Ekaitz Hernandez



24 Albuma



54 Ramon Garcia



BASALBO BASERRIA JATETXEA

Gaizka Escudero *Pipi*

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta

HELBIBIDEA: Arnezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel, Amaia Arriaga

FOTOGRAFIA: Asier Mentakia

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Jon Urresti,
Bittor Egurrola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezcaga,
Esti Ezkerra, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Berbets Erandion
Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

Osonik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaideak da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du



Itxasgane Etxea / Karitatea 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta



Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du



Aldizkari honek Erandioko Berbets Euskaraz elkarrean laguntza jasotzen du



Bizkaiko Foru Aldundia



EROSKI FUNDAZIOA



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du



uk aldizkaria etxean jaso nahi baduzu



94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz

gugeu

Xurrut

Seguru asko aldizkari honen irakurle askok ez duzue Gorlizko Xurrut tabernaren berri izango, seguru asko ez zarete han sekula egon. Xurrut (gehiago jakin nahi baduzue, irakurri UK-ko zenbaki honetan 46. orrialdeko elkarrizketa), geuretzat behintzat, bilgune berezia da. Pizzak (bertan egindakoak eta, portzierto, primerakoak) saltzen dituzte tabernaren goiko solairuan. Tabernako bazter izkutu batetik lurrazpira doazen eskailera batzuk abiatzen dira, areto txiker eta ilun batera eroango zaituztenak. Agertokia eta barratxu bat daude han. Zulo maitagarri horretan kontzertu zaratatsu eta gogoangarriak antolatzen dituzte barikuetan. Talde *rockanroleroak*, alaiak, ingurukoak, kañeruak.... izaten dira jeneralean han jotzen dutenak.

Eskualdean bakarra den txoko ilun hau izugarri estimatzen dugu, kulturak izan behar duenaren adibide bikaina iruditzen zaigulako. Xurrut taberna-pizzeriaz maiteminduta gaude, kulturgune bizi eta eredugarria delako, ekimen paregabea eta txalogarria. Gainera, asko d'ibertitzen gara han.

20 urte bete ditu Xurrutek egunotan. Zorionak, xurrutarrak!
Eta mesedez, faborez, arren... ez etsi! 4

UK-ko lantaldea

gutunak

Zuon iritziak, eskaerak, proposamenak... garrantzitsuak dira guretzat.
Harremanetarako: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37 • Faxe: 94 491 58 31

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

Goizero irakurri > berria



MARIA KRISTINA PARKEA, 2005eko EKAINA

Lepoan hartu eta... / Antzina-antzinatik bizi dira Algortako Maria Kristina parkean emakume bi. Bartzelona aldean sortu ei ziren 1905-10 urteen artean. Sei arreba ziren eta bikoteka herriko txoko desberdinetan lekutu zituzten mende hasikeran argi-eskultura hauek: Maria Kristina parkean eta San Nikolas eta Bizkaiko Zubiko plazetan. Gaur egun, Maria Kristina parkekoek baino ez diraute zutunik. Hantxe paratu berri duten igogailuaren inaugurazioa dela-eta, bezperan atontze lanetarako udal-beharginen zama jasaten erretratu hau egin genion emakume hauetako bati. m / Argazkia: **Mikel Martínez**

Leihatila

> Maddi Albizu

Teknologiak
eta giza-harremanak

Aspaldiko kontua da teknologia gure gizarteko gaitz guztien erruduntzat hartzea. Teknologiaren kontrako diskurtsoak ere oso aspaldikoak ditugu. Mugimendu luddista, esaterako, oso ezaguna izan zen XIX. mendearen hasieran teknologiek gizakiari lanerako sormena eta, beraz, lanaren gaineko kontrola lapurtzen zizkiotela zioelako. Luddismoak bazuen, gainera, ekintza lerro zuzenik, makinak apurtzea. Gaur egun ere, luddismoaren bertsio arinagoak ditugu gure artean. Teknologiaren kontrako diskurtsoaren ardatza, orde, lan eremutik giza-harremanetarantz desplazatu da. Luddismoaren garaian teknologiak lanean zuen ustezko eragin kaltegarriagatik gaitzesten bazen, gaur egun gizakion arteko harremanetan dituen ondorio txarrengatik errefusatzeko da sarritan. Eraginik baduela ukatzerik ez. Giza-harremanak txarrerako ala onerako aldatzen ote dituen, berri, bestelako kontua da. Hala ere, nire ustez ez dugu zertan kezkatu. 4

IRITZIA

Zer behar da herri honek bakea lortzeko? Galdera hau luzatzen ari gatzazkio eskualdeko hainbat laguni. Oraingoan EA alderdiko Josu Erkiagaren iritzia jaso dugu.

Zer behar da
herri honek bakea lortzeko?

Hainbeste urte bakearen bila, bakea lortu nahian, dabilen herriari bakea lortzea posible dela esatea ez da batere kontu erraza.

Pasatu ziren Argeleko garaiak, pasatu ziren Lizarra-Garaziko sasoiak. Tartean sufrimendu itzela. Hildakoak, bahituak, jazartuak, torturatuak, ilegalizatuak... Ez da, ez, panoramarik egokiena bakea eskura daitekeela, eskura dezakegula sinestarazteko.

Baina, bestalde, azken bi urteotan badira datu objektiboak –nahikoak diren ala ez beste kontu bat litzateke- itxaropena berriro piztera eraman gaitzaketenak. Gatazka armatuari dagokionez, ez dugu hildakorik izan urte bitik hona; ETA sueten partzialak erabakitzen ari da; Espainiako Kongresuak nolabaiteko borondatea erakutsi du bake prozesu bati ekiteko; ...

Bake prozesuaren lehen urratsetan gaudela uste dugu. Zalantzarik gabe, prozesu luzea izango da, urteak beharko dituen. Atzerapausuak ere izango dira, zoritxarrez. Baina badira bi elementu prozesua itzulezina bihurtzen dutenak: ETAk badaki, M11ren ondoren, heriotzak eragin ditzaketen atentatuak burutzea ezinezkoa dela, euskal gizarteari barruak irauli

egingo litzazkioketelako; era berean, oraingo Espainiako Gobernuak ondotxo daki bide polizial hutsak ez duela ETA desagertzea lortuko.

Hortxe daude mugak. Muga horien barruan bideratu behar da bake prozesua. Muga horietatik kanpo mugitzen denak dena du galtzeko.

Beste kontu bat da nola jokatu muga horien barruan. Bi baldintza nagusi bete behar dira, gure ustez biak ezinbestekoak. Komunikazioa/diskrezioa eta Eskuzabaltasuna/Distentsioa.

«Gure ustez, ezinbesteko bi baldintza bete behar dira: Komunikazioa/Diskrezioa eta Eskuzabaltasuna/Distentsioa»

Denbora ere garrantzitsua da. Euskal gizarteak, oro har, baina belaunaldi jakin bateko herritarrek herri hau bakean ikusi nahi dute, ikusi nahi dugu. Hor ere ez gaude egoera txarrean. Espainiako Gobernuak, Zapateroak hain zuzen ere, urte bi ditu aurretik inolako oztoporik gabe. Amaitu dira arlo politikoa hain sakonki baldintzatzen duten hauteskundeak. Pasatu dira Europakoak, pasatu dira Euskal Autonomia Erkidegokoak, pasatu dira Galiziakoak. Egoera sendoa dago, harik eta Espainiako Gorteetarako hurrengo hauteskundeak heldu arte, tentuz baina ausardiaz jokatzeko.

Ezinbestekoak keinuak dira. Behar den besteak izan ez arren, prozesua abian dela erakutsiko dutenak. Geldialdirik ez, beraz. Zorionez, agertzen ari dira apurka-apurka, goratxoago aipatu dugun moduan. Hurrengo pausuak hauek izan beharko lirateke: Gobernuak hirugarren graduaren daudenak eta zigorraren hiru laurdenak beteta dituzten presoak kalean jartzea. Ondoren, ETAk behin betiko suetena aldarrikatzea. Geroago, presoek Euskal Herriratzea eta Lege Antiterrorista indargabetzea, ETAk behin betiko armak uztea eta Estatuak amnistia onartzea.

Azkenik, eta orain arte aipatutakoaren gainetik, biktima guztien onespén soziala. Gatazka, gehiago edo gutxiago, denok jasan dugu, baina biktimak zuzenean eta modu latzean. Denok gaude

eurokin zorretan. 4

Josu Erkiaga

(EA-ko Bizkaiko Batzorde Eragileko komunikazio arduraduna)



GETXOKO UDAL LEIURUTEGIA



ASIER MENTAKA

Iraganez doa denbora* beti / BASAGOITI ETORBIDEA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

photoshop > Villamonteko kai berria



Irudiak eta manipulazioa: A. M.

ekitaldia > 25 urte bete ditu Bizkerre Futbol Taldeak

Bizkerre antzinako Getxoko baserri baten izena da, gero herriko kale bati izena eman diona. Baina Bizkerre hori baino gehiago da, aurten bere zilarrezko ezteiak ospatu dituen futbol taldea, hain zuzen ere. Taldea 1980an sortu zuen guraso talde batek Sopelanako hondartzako futbol txapelketetan euren semeek joka zezaten. Ondoren gazteak federatu zituzten eta, garai hartan zoroen kontua ematen bazuen ere, emakumezkoen taldea sortzea erabaki zuten. Harrezkero denbora luzea pasatu da eta taldeak urte hauetan fruitu asko eman ditu; hortxe ditugu esaterako, Athleticen emakumezkoen taldeko jokalaria. Zorionak, Bizkerre! ^m



Hilaren 17an egin zen ekitaldia

kale izendegia > Jaime Morera




Lleidan 1854an jaio zen margolari hau Carlos Haes margolari belgikarraren jarraitzailea zen, eta bai batak bai besteak kale bana daukate Algortan: Morerak Arrigunaga inguruan eta Haesek berriz, San Inazio elizatik oso hurbil. Jaime Morera i Galicia Estatuan eta atzerrian egin zituen hainbat erakusketagatik saritu zuten. Madrilgo Arte Garaikidetako Museoan dagoen *Sala Haes* aretoa sustatu zuen, eta bere sorterrian bere izena daraman museoaren sortzailea izan zen. Batez ere olio teknika baliatuz margoztu zuen, baina ez dira ahaztu behar akuarelaz egin zituen koadroak, ezta bere marrazkiak ere. Algortan egon zen garaian, Felisa Aldai ezagutu eta beragaz ezkondu zen 1900ean. Uda sasoiari, senar-emazteak *Jardingane* etxean zeukaten bizilekua. Morera Jauna 1927ko apirillean hil zen eta Getxoko kanposantuan lurperatu zuten, bere emaztearen alboan. ^m

Argazkian, Getxoko Jaime Morera kalea

kirola > gure txapelduna



Urte asko daramatza Iñigo Landaluze txirrindulari algortarrak pedalei eragiten. Dabilenari gertatzen zaiola esaten da, eta akabuan Iñigori gertatu zaio. Kostata eta pronostiko guztien kontra Dauphiné Libéré lasterketa ospetsua irabazi zuen Landaluzek, bere ibilbide profesio-nalean lehenengo saria. Ez dadila azkenekoa izan! ^m



Txikik esan digu gauaren inguruan ikuskizuna sortzea lortu dutela. “Astero jendea aho zabalik uzten ahalegintzen gara”

Jose Andreiñua “Txiki” > The Image Clubeko sortzailea

Lehenengo kontraesana: Jose Andreiñua *Txiki* (Algorta, 1968) ez da batere gautxoria. “Goizeko hiruretarako neka-neka eginda nago. Gaztetan ere ez nuen gaua hainbeste bizitzen, akaso 19 urtegaraz alaba baten aita izan nintzelako”. Bigarren kontraesana: jazza entzuten du. “*Hemen progressive eta house doinuak dira nagusi*”. Hirugarren kontraesana: 18 eta 25 urte bitarteko gazteak (barikuetan joaten direnak) ez ei dute sesiorik sortzen. “*Zapatuetan etortzen diren helduek liskar gehiago sortzen dituzte*”. Azaroan zazpigarren urteurrena beteko duen Berangoko The Image Cluba gero eta sona gehiago hartzen dabil, eta oso ezaguna da. Donostia, Gasteiz, Santander, Logroño, Madril... Leku askotatik etortzen dira astebururo 750en bat lagunentzako tokiak daukan diskoteka honetara. Baina hastapenak ez ziren samurrak izan: “*Sarrera kobnatzen eta house musika ipintzen lehenengoak izan ginen Bilbo Handian, eta jendeari hori guztia arraroa egiten zitzaion*”. Uribe Kosta eta Euskal Herriko eremua txiki geratu zaiela dirudi, azken urteotan Eivissa, Madril,artzelona eta Valentziako punta-puntako diskoteketan jaialdi asko antolatu dituzte-eta: “*Atenatzen garenean, leku handietara joaten ahalegintzen gara*”. Atzerrian ere ibili dira The Image Clubekoak: lau urte daroaz Miami-ko Winter Conference Music jaialdi garrantzitsura joaten (bertan munduko DJrik onenak daude), eta zenbaki hau argitaratu orduko, Errumanian egongo dira diskoteka birentzako ekitaldiak antolatzen. ^m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Jon Urresti**

Ereagako igogailua martxan

Egitasmoa gauzatzeko **1.396.686 euro** erabili ditu Udalak; **bidaia txartelak 20 zentimoko** salneurria dauka eta apiriletik urrira **egunero eta 12 orduz** eskainiko du zerbitzua

Getxoko Udaleko Irisgarritasun Egitasmoaren barruan dago Ereaga eta Algortako goi aldea dagoeneko lotzen dituen igogailua. Ekainaren 17an egin zuen lehengo bidaia eta Udalak 1.396.686 euro inbertitu ditu egiteko honetan. Apiriletik urrira bitartean, goizeko 10:00etan hasten da zerbitzua eta gaueko 10:30ean amaitu.

Maiatzerako abiarazi behar zuten igogailuaren zerbitzua, baina azkenengo atonketak zirela, langileen kontratazio lehiaketa zela, Industriako saileko baimena zela, orain dela bi aste inguru ipini zuten martxan Ereaga eta Maria Kristina parkea lotzen dituen igogailua. Urtebete inguruko iraupena izan dute eraikuntza lanek: igogailuaren euskarri eta lotuneak ipini, errail edo bideak, geltokiak eraiki, ingurunea lehen zegoen moduan utzi arbolak-eta landatuz, eta abar.

Bidaia bakoitzeko gehienez 25 laguntzako lekua dago igogailuan, eta lehenengo aurreikuspenen arabera urtean 250.000 erabiltzaile izan ditzake. Hala ere, Getxoko alkate Iñaki Zarrakoak azaldu duenez, “80.000 bidaiarira iristen bada lorpen handia litzateke”. Bidaia txartelak 20 zentimoko prezioa dauka eta Ereagako geltokian bakarrik erosi ahal izango dira.

Ibilbideak 72 metroko luzera dauka, eta 45 metroko malda dago bi geltokien artean. Igogailua bi errailen gainetik doa 1,6 m/s abiaduran eta ez du gidaririk behar.

Geltokien eta igogailu beraren garbi-



Urtero 80.000 bidaiari garraiatzea espero dute udal arduradunek

ketaz, mantenuaz, segurtasunaz, diru-bilketaz, datu estatistikoak biltzeaz... Lan-tegi Batuak enpresak kontratatuturiko eta ezintasunen bat daukaten lau behargin arduratuko dira, eta egiteko horretara Udalak urtean 75.000 bat euro bideratuko ditu.

«Punta Begoña aldean eta Portu Zaharrean ere antzeko proiektuak egin ditzakete»

Beste egitasmo batzuk

Ereagako igogailuaren inaugurazioan Getxoko alkate Iñaki Zarrakoak antzeko beste proiektu batzuk ere aztertzen dabiltzala iragarri zuen: “*Punta Begoña aldean beste igoigailu bat jartzea, bertan hotel bat egitekotan dabiliza; eta Portu Zaharreko eskailera neketsuak gainditzeko sistemaren bat ipintzea aztertzen gabilza*”. m



Jakingarri

- **Bidaia txartela:** 20 zentimo. Creditrans txartela erabili daiteke eta 2 zentimoko aurrezkia dauka bidaia bakoitzeko.
- **Ordutegia:** 10:00-22:30 (apirila-urria) eta 10:30-20:00 (azaro-martxo)
- **Debekatuta:** Bizikletak, animalia handiak. Umeen txirindulak, itsuen txakurrak, eta surf eta bodyboard oholak eroan ahalko dira.
- **Kostua:** 1.396.686 euro.

Yosemiteko paretak menderatzea Marcos eta Unzetabarrenetxea eskalatzaileen apustua



Unzetabarrenetxea eta Marcos Atxarten

Bi emakume getxoztarrek, Larraitz Unzetabarrenetxeak eta Miren Gurutze Marcosek Yosemiteko Parke nazionaleko (AEB) 3 paretaz egun eskalatzeko erronkari aurre egiteko asmoa daukate. Horretarako 2 hilabetezko tarte hartu dute, uztaila eta abuztua, eta helburua betetzen badute hori lortzen duen Bizkaiko lehenengo emakume kordada izango litzateke. Eskalatu gura dituzten 3 bideak hauek dira: *Regular Northwest Face* (Half Dome), *The Nose* eta *Salathé* (biak El Capitanekoak). Marcosek azaldu legez, teknikoki ez ei dira paretak gatzak, zailta-

sunek dautza: hormen luzeeran (1.000 m baino gehiago), paretan bertan lo egin behar izatean eta elikatze zela gainontzeko beharrianak eurek azaldu behar izatean datzate. Horrez gainera, granitozko paretak dira eta eskalatzaileok ez daude oso ohituta mota horretako hormak igotzera. Baina gogotsu eta irrikan daude Marcos eta Unzetabarrenetxea, orain dela hiru hilabete jaiotako ideia borobiltzen ikusi dute eta orain erronka betetzen ahalegintzea da euren eginbeharra. Proiektuak 5.000 euro inguruko aurrekontua dauka eta Getxoko Udalak 1.700 euro eman dizkie. m

BANDERA URDINA DAUKA GORRONDATXE HONDARTZAK

Europako Ingurumen Heziketarako Fundazioak bandera urdina eman dio Gorrondatxe-Azkorri hondartzari. Udaleko Ingurumen zinegotzi Fernando Burzakok Ereagarentzat lortzen ahaleginduko direla adierazi du. Hala ere, Getxoko Udalak ISO ziurtagiriak eskuratzeko helburua ere badauka, zerbitzuaren eta azpiegituren gaineko kalitatea aztertzen dute horiek, eta bandera urdinak lortzea baino zailagoa ei da.

Gorrondatxeo bandera urdina



ESPALOIAK EGOKITZEKO 681.328 EURO

Irisgarritasun Plagintzaren barruan 681.328 euro bideratuko ditu Udalak herriko espaloiak egokitzeko. Oraingoan Algortan (Gaztelumendi, Aralar, Urkiola eta Beato Domingo de Iturrate kaleak) eta Areetan (Arlamendi, Bidearte, Club, Pinar eta Zalama kaleak) egingo dira lanak. Ondorioz Areetan aparkatzeko hainbat leku galduko dira (TAO gunekoak), Getxoko alkate Iñaki Zarrakoak Mesedeetako aparkalekuaren eskaintzak horien hutsunea betetzen duela gogoratu du.



RENAULT ocasión

IBILGAILU IA BERRIEN GUNEA GETXON

“0 Km” dun ibilgailuak, Ibilgailu ia berriak eta Aukerakoak. **RENAULT**en bermearekin.

Getxo I Institutuaren ondoan



RENAULT
BILBO BERRI
Bizkoro/k.z/g. - ALGORTA
Tel.: 94 410 61 81
Jon Arrespide, 20 - ERUSTO
Tel.: 94 448 39 03

Itzubaltzetak

urtea bete du zabalik,
urte askotarako!

Urtea joan da eta Itzubaltzeko gaztetxeak zutunik dirau. Ospatzeko moduko arrazoia izan da Itzubaltzeta/Erromoko gaztetxe-ontzat eta hamaika koloretako ekitaldiak prestatu zituzten ekaina amaieran: Argazki erakusketa, Akelarrea eta txokolatada (San Juan bezperako gauean), lantegiak (Hack lab, perkusioa, eskulanak, tahitiano, jostura, dantzak, umeentzako jolasak...), trikipoteoa eta herri bazkaria, ManiFESTAzioa, olinpiadak, kontzertuak, antzerkia... Ez dago gogoratu beharrik gaztetxeko ateak gazte eta auzotar guztientzako zabalik daudela, denborapasarako, lan egiteko, ekitaldiak antolatzeko, elkartzeko, herria mugiarazteko eta berpizteko... Gazteen etxeak bizirik segitzen du, eta hala bedi urte askoan! ^m



Itzubaltzeta gaztetxea

GETXOKO 15 GAZTE ELKARTERI 26.500 EURO

Getxoko Udalak 26.500 euro banatu ditu hurrengo taldeen artean: Gaztetasuna, Algortako Eskaut Taldea, “Asociación Benéfica Galea”, Hazi eta Bizi Gazte Erakundea, Itxartu Mendigoizale Taldea, Algortako Itxartu Gaztetxoak, Gazte Enbata Aisi Elkarte, Itxas Argia Mendi Taldea, Negubide, Ibaiondo Kluba, Eskubeltz Eskaut Taldea, Ziztu Bizian Eskaut Taldea, Irutasun Kultur Elkarte, Andra Mari Mendi Taldea eta Gurutze Gorriaren Gazte Taldea dira. Talde guztion artean urtean 480.000 euro inguruko egitasmoak eramaten dituzte aurrera, batez ere umeei eta nerabeei begira.

Jabi Baraiazarra > mendigoizalea

“Pakistango hau erronkarik gogorrena izan daiteke”



Pou anaien Pakistango erronkan parte hartuko du Baraiazarrak. Gertakarien berri: www.pouanaiaik.com

Kontinente bakoitzeko paretarik esanguratsuenak modu askean eskalatzeko helburua dauka Eneko eta Iker Pou anaiak eskuartean daukaten “7 pareta 7 kontinente” proiektuak. Dagoneko 4 erronka erdietsi dituzte, eta azkenengo hiruretan Jabi Baraiazarra areetarra eurekaz ibili da argazkiak eta irudiak hartzen. Pakistan (Trangoko Dorrea) daukate orain jomuga eta uztail hasiera honetan abiatu dira harantz.

—Zenbat urte daroazuz eskalatzen?

—Txikitatik beti mendira joaten ginen, eta eskalatzen 19 urterekin hasi nintzen, nahiko berandu, Getxoko jendearekin. Garai hartan ezagutu nuen Getxoko Miguel del Tio, Madagaskarrera geugaz etorri zena, eta berarekin hasi ginen poliki-poliki Atxarten. Ordutik eskaladaren munduan sartuta nago, zaletasun legez, ez lanbidez. Baina, azken urteotan argazkiak eta telebistako lana dela-eta Pou anaiekin lan batzuk egiteko aukera sortu zen, eskalada mundutik elkar ezagutzen genuelako. Gero proposatu nien argazkiak ateratzera eta filmatzera joatea; egindakoa ETBkoei erakutsi eta gogoko izan zuten, harrezkero Pou anaiekin nabil proiektu honetan eta beste batzuetan. Ipar Amerikako (Yosemite) erron-

kan izan ezik, besteetan eurekin egon naiz: Europan *Zumbeltz* bidea (Bulnesko Naranjo, Asturias), Afrikan *Bravo les Filles* bidea (Tsaranoro mendia, Madagaskar), Ozeanian Totem Pole (Tasmania) eta Asiakoa oraingo hau: *Eternal Flame* bidea (Trango Dorrea, Pakistan). Denak ederrak, baina Totem Polekoa ikusgarriena. Laburra izanik ere, dorrea itsasoan hasten da: ur-bide bat dago, bertara

“Totem Pole izan da oraingoz ikusgarriena eta jendearendako deigarriena”

ur korronteak sartzen dira, eta bat egiten dute justu Totem Polen parean, kriston olatuak sortzen dira, eskalatzen zaude eta zure gainerik olatuak... Estetikoki politena izan da, eta jendearendako deigarriena. Eskalada maila, nik uste, hauen mailarendako teknikoki erreza izan zela; hala ere, logistikoki eta urak sortzen zituen arazoengatik gogorra izan zen. Hemen ohituta gaude Punta Galean eskalatzen, eta ikusgarria da, baina hangoa itzela da. Madagaskarrekoa ere ederra izan zen, beste kultura bat ezagutu eta bertakoein izan genuen harremanagatik.

—Eta Pakistaneko hau zelan ikusten duzu?

—*Eternal Flame* eskalada askeko eskalatzaile indartsuenek zabaldu zuten 1989an, baina ez zuten bide osoa modu askean egin, eta oraindik ez du inork lortu. Badakigu librean egitea oso zaila izango dela, agian proiektuko gogorrena da; gainera altueraren plusa ere badago. —Poutarrentzat ospea, baina zuen lana ez al da nahiko itzalpean geratzen?

—Istoria hauek ez dute aurrera egingo bitartean adiskidetsuna ez badago. Egoera oso gogorrak dira, eta lan kontua bakarrik egon da ezinezkoa da. Asko ikasi dut eurengandik eta nik uste eurek ere ikasi dutela nigandik, elkar trukea da, bizitza bera baina paretan, eta muturreko egoeretan. Ospea? Euren da osoa eurak dira artistak. Gu eurek egiten dutena isladatzeko eta zabaltzeko goaz, eta ez nintzateke halako tokietara joango eurengatik ez balitz, aukera itzela ematen didate. ^m

Graffiti lehiaketaren

inguruko jaia
Zabala, Basagoiti eta Arigunagan egingo dira irudiak



Graffiti lantegia Portu Zaharrean emango dute

Oraintsu arte egon da zabalik Euskal Herriko II. Graffiti lehiaketan parte hartzeko epea, eta laster jakinaraziko ditu Topaguneak, Euskara Elkartearen Federazioak, aurkeztutako bozetoetatik Getxoko hormetan margoztuko diren hamarrak. Horma-irudiak egiteko paretak Arrigunagako hondartzan, hortik Usategirako bidean, eta Zabala eta Basagoiti kaleetan egongo dira. Esan legez, Graffiti Lehiaketaren finala hilaren 16an (9:00-18:00) izango da eta horren inguruan jaia antolatu dute. Jaigiroa, aipatutako lekuez gain, San Nikolas plazan, Algortako Metro pla-

zan, Arrigunagako skate parkean eta Portu Zaharrean egongo da. Graffitiaren jaia izaki, ez dira faltako arte mota honen lagun minak: break dance, scratch, eta DJen emanaldiak (Selektah Sound System eta Intxaurbreak taldeakaz), getxoar skaterren erakustaldiak... Haurren txokoa Metro plazan egongo da: skate pista, lantegiak... Eta gazteen gunea San Nikolas plazan: scratch, perkusio, break dance... lantegiak eta GoldXpression taldearen zuzeneko graffiti erakusketa. Kokein eta M.A.K taldeen kontzertuak ere iragarri dituzte. ^m

GAZTEEN SORMENA
ETA EKOIZPEN ARTISTIKOAK
SUSTATZEKO LEHIAKETA

2005

EUSKAL HERRIKO
II. GRAFFITI LEHIAKETA

TOPagunea

ERAKUNDEA

Getxo

UDALA - AYUNTAMIENTO

Gastein Zerbitzuak
Eusko Zerbitzuak

Jaialdi erraldoia!
zatoz!
Uztailak 16
GETXO

www.topagunea.org

[getxo]

“GAZTE IRUDI” LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO EPEA ZABALIK

Hilaren 22ra arte 12 eta 30 urte bitarteko gazte getxoarrek euren marrazkiak, argazkiak edota muntaketa-grafikoak Gazte Irudiak lehiaketara aurkezteko aukera izango dute. Getxoko Udalak antolatutako lehiaketak irudi fondo bat sortzeko helburua dauka, eta gazteen lanok gerora udal agerrietan erabiliko dira. Gaia librea da eta gazte bakoitzak gehienez 10 lan bidal ditzake. Gazte Zerbitzuak aurkeztutako lanetatik 50 aukeratuko ditu eta bakoitzaren truke 20 euro emango ditu. Argitaratzen direnean egileen izena aipatuko da beti.

Informazio gehiago: www.getxo.net

BERTSO JAIALDI MUNDIALA HILAREN 8AN

Puntako bertsolariak erakarri ditu aurten ere Algortako Bertsolari Eskolak antolatutako VII. Berto Jaialdi Mundialak. Hilaren 8an (22:00) Biotz Alai plazan Euskal Herriko eta Bizkaiko txapeldunek eta txapeldun ordeek eta bi txapeldun gai handik jardungo dute: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Unai Iturriaga, Aitor Mendiluze eta Xabier Paia. Gai jartzailea Aitzol de Kastro izango da.

“LA KANTERA” GUZTIZ ERABILTZEKO PREST

Arrigunagako skate park osoan patina daiteke dagoeneko. Txus Dominguez eta Javier Labad arkitektoak egindako zaharberritze eta urbanizazio proiektuko lanak amaitu dira eta egiteko horretara 10.000 euro bideratu ditu Udalak. Hala ere, instalakuntzaren eraikuntzak eta ingurunearen egokitze lanek guztira 100.000 euroko kostua eduki dute.

12UK

UK 13

Tokiko Agenda 21

Konpromisoa sinatu du Udalak **garapen iraunkorraren alde**

Garapen iraunkorra. Horixe da, hain zuzen ere, Leioako Udalaren xedea Tokiko Agenda 21 hartutako konpromisoaren bidez. Garapen Iraunkorra kontzeptua lehen aldiz 1987an formulatu zen, Brutland Txostena izeneko idatzian. Txosten horren arabera, garapen jasangarria hauxe da: *“Egungo premiak asetzen dituen garapena, etorkizuneko belaunaldiak beren premiak asetzeko izango duten gaitasuna arriskuan jarri gabe”*.

Tokiko Agenda 21 programaren helburua garapen iraunkorraren printzipioak udal eremuan aplikatzea da, hau da, ongizatea eta bizikaltatea handitzea; ez soilik ingurumenari dagokionean, gizarte eta ekonomia eremuetan ere aplikatu nahi da.

«Alor guztietan hartutako erabakietan ingurugiroa kontuan hartu behar da»

Egindako azterketen arabera, gaur egungo bizimodu ereduak erabat xahutzen ditu ingurugiroa eta baliabide naturalak, munduaren berreskurapen ahalmenaren gainetik. Baliabide natural horiek, beraz, mugatuak izanik eta horiek zaindu ezean etorkizuna zalantzaz beterik ageri da. Horregatik, Tokiko Agenda 21 konpromisoaren bidez Ingurugiroarekiko ikuspegi integratua eskuratu nahi da. Horrek esan nahi du, alor guztietan –kultura, ekonomia, hirigintza...– hartutako erabakietan ingurugiroa kontuan hartuko dela.



Tokiko Agenda 21 programaren helburua garapen iraunkorraren printzipioak udal eremuan aplikatzea da

Erabakia hartu aurretik, ordea, egoeraren analisia egin behar da. Horregatik, Udala udalerriaren “argazkia” egiten dabil, iraunkortasunerako bidean zein lekutan dagoen jakin ahal izateko. Bertan, besteak beste, alderdi hauek aztertuko dira: gizarte eta ekonomi ingurunea, hirigintza plangintza eta lurralde antolamendua, mugikortasuna eta garraioak, eta baliabide naturalen kudeaketa (ura, energia eta hondakinak)

Tokiko Agenda 21 diseinatu eta zuzentzeko arduraduna Udala izan arren, herritarren

parte hartzea bultzatzeko bideak irekiko ditu. Adibidez, jardueren segimendua eta herritar guztien partaidetza aktiboa sustatzeko *Eutsi Leioa* izeneko aldiakaria kaleratuko du Udalak aldiro, emandako urratsen berri emateko eta parte hartzeko bideak ezagutaraziz.

Aldaketa eta helburu garrantzitsuak ditu Agenda 21 egitasmoak. Hala ere, etorkizuneko ikusiko da letretatik ekintzetara igarotzeko ahalmena duen ala ez. Lortuz gero, benetan urrats garrantzitsua emango da ingurugiroaren alde. m

Leioako Gazte Orkestra

60 musikarik osatzen dute Gazte Orkestra, 13 eta 24 urte bitartekoak guztiak



Margarita Lorenzo de Reizabal orkestrako zuzendaria musikari gazteez inguratuta

1991n jaio zen Leioako Gazte Orkestra. Hasieran, orkestrako irakasgaiaren jarduera osagarri bezala sortu zen. Orkestrak, ordea, hasierako helburuak erraz gainditu zituen. Erakutsitako maila ona zela-eta kontzertuak eskaintzen hasi zen Musika Eskolatik kanpo eta gaur egun, eskaintza ugari baditu ere, urtero 10 edo 12 musika emanaldi eskaintzen ditu kontserbatoriotik kanpo.

Leioako Gazte Orkestra zuzentzen duen Margarita Lorenzo de Reizabalek Arriagan eskainitako kontzertua azpimarratu digu. *“Inflexio puntua izan zen; Mozarten Requiem-a jo genuen eta arrakasta itzela izan genuen. Madrilena ere gonbidatu gintuzten*

San Frantzisko Handiaren Basilikan lau mila ikusleren aurrean jotzeko”.

Oro har, 60 musikarik osatzen dute Gazte Orkestra, 13 eta 24 urte bitartekoak guztiak. Orkestra hau musika munduan aurrera egiteko erakustoki paregabea dela aipatu digu Orkestrako zuzendariak. Horrela, *“maila ona lortzen dutenean ikasle askok orkestra profesionalelara joan daitezke”*.

Azkenaldian Baionako katedralean eta telebistako programa batean (*El concierto*) jo dute ikusleak aho bete hortz utzita. Ondo egindako lanaren ordaina jaso du Gazte Orkestrak; izan ere, Euskalduna Jauregian joko du datorren urrian. m

BERBALAMIÑE, PAUSUZ PAUSU BIDEA EGITEN

Joan den ekainaren 17an Batzar Orokorra egin zuen Leioako Berbalamiñe euskara elkarteak. Alde batetik, orain arte egindako lana baloratu zen. Geldoak baina sendoak dira hasierako urratsak, batez ere, *“lan handia egin dugu elkartearen antolakuntzan”*. Bestetik, datozen hilabeteetarako norabidea proposatu zen. Jorratu beharreko gaien artean honako hauek aipatu ziren: mendi eta bizikleta txangoak, jaiak euskaldundu beharra, dantza ikastaroak, euskarari buruzko hitzaldiak... Honekin guztiarekin txostena prestatuko du zuzendaritza taldeak datorren irailean egingo den Batzar Orokorrerako.

72 GARAJE-APARKALEKU IKEA BARRI PLAZAN

Ikea Barri plazaren azpiko bigarren sotoan dauden 72 garaje-aparkaleku salmentan daude. Udalaren jabetzakoak izanik, aparkatzeko arazoak arintzeko hartu du erabaki hau Udalak. Osasun Etxe ondoan dauden lurpeko parking-partzela hauek 10 eta 17 metro tartekoak dira eta salneurria 12.000 eurotik 19.000 eurora bitartera. Argibide gehiago eta eskaera egin daitezke udaletxeko Ekonomi Sailean.

MENDI IRTEERA NAFARROA ALDERA UZTAILAREN 17AN

Oraingo honetan Baztan eta Iparraldean banatzen dituen mendilerroa egingo dute irteera Leioako Mendi Taldeko lagunak. Otsondo izango da ibilaldiaren hasiera puntua; zehazki Otsondoko portua (570 m). Gorramendi (1.074 m), Goramakil (1.090 m) eta Irubelakaskoa (967m) mendi tontorretatik igaro eta gero Bidarrain -Nafarroa Behereko udalerria- bukatuko da mendi irteera. Aukera paregabea ezezaguna bezain ikusgarria den ingurua ezagutzeko. Izena emateko astelehen eta ostegunetan (19:00-21:00) Kiroldegian edo 689 721 917 telefono zenbakira deituta.

**ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
IMPRESIO DIGITALAK**

egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo

taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

zure publizitatea hemen
zure publizitatea hemen
zure publizitatea hemen

94 491 13 37

San Trifon jaiak

Santutegian arrastorik utzi ez duen santuarenganako debozioa adierazteko jaiak **uztailaren 1, 2 eta 3an** Arriagan

Aurreko urteetan jai batzordean ibilitakoek behar horri utzi egin diotela-eta talde berriak hartu du aurten bere gain jaien antolaketa, Arrioztarrak auzo elkarteak. Hamabi kide dira taldean eta bakarra lehenago ere zeregin horretan aritua.

Adinari erreparatuta 39 urte ditu gazte-enak eta 68 urte nagusienak. Tartean dira besteak. *“Gazteek ez dute auzoan bizimodurik egiten, Bekoara joaten dira eta ez dute hemengo gauzetan parte hartu nahi”.* Jaietarako zapia egitea erabaki dute eta horixe da aurtengo berrikuntzarik nabarmenena. Bestela, txalaparta ekitaldia baino ez da berria izango egitarauan.

Badira Arriagara jaietan nahikoa jende erakartzen duten ekitaldiak. *“Mus txapelketan 30-40 bikotek parte hartzen du eta idi probetara ere jende asko etortzen da. Gero, jendeak badauka ohitura, San Trifon egunean mezetara etortzeko, aspaldiik kanpoan bizi den jendea-eta etortzen da”.*

Udalaren aldetik 8.170 euroko diru-laguntza edukiko dute 12.000 euroko aurrekontuari erantzuteko. Gainontzekoa babesleengandik jasotzen dutenarekin eta txosnan ateratakoarekin osatzen dute. Auzoko etxeetara ere joaten dira programa eskura



Argazkian, Maria Eugenia, Josebiñe, Jose, Gloria, Marian eta Jose Luis

eroaten eta jaietarako dirua batzen.

Eta azkenean, txosnako txandak egiten eta antolakuntzako bestelako zereginetan laguntzen ibilitako guztiak gonbidatzen dituzte bazkaltzera, hurrengoan ere erreparorik animatu daitezene.

«Jaietarako zapia egingo da eta horixe da aurtengo berrikuntzarik nabarmenena»

LASTER ZABALDUKO DUTE ADINEKO PERTSONENTZAKO EGUNEKO ZENTROA

Erandio Goikoako San Jose egoitzan zerbitzu berria jarriko dute martxan laster, inoren laguntza behar duten pertsonentzako eguneko zentroa. Dagoeneko egin dituzte zerbitzua eskaintzeko egin beharreko egokitze lanak eta baita zerbitzua azpikontratatzeko deialdi publikoa ere. Bi enpresa aurkeztu dira lizitaziora eta egoitzako zerbitzua nahiz eguneko zentroaren zerbitzua Garbaldi enpresari adjudikatzearen alde agertu da Kontratazio Mahaia. Bi urteko kontratua sinatuko du Udalak enpresarekin.

Euskal selekzioaren aldeko aldarria Astrabuduan



Hirurehun bat pertsona elkartu ziren herri bazkarian

Euskal Herriko selekzioaren ofizialtasuna aldarrikatu zuten ekainaren 18an Astrabuduan bildutako ehunka lagunek eta euskal selekzioaren koloreak nagusitu ziren herriko gazteen soinetan. Errebindikazio egunari hasiera emateko ekitaldian Tzibi Athleticen futbolariak eta Goierri soka-tira taldeko lehendakariak parte hartu zuten herriko ESAIT taldeko kideekin, alkatearekin eta

kultura zinegotziarekin batera. Ofizialtasuna lortu arte, herrian errebindikazioa eta jaiak uztartuko dituen eguna urtero antolatzeko asmoa erakutsi zuten antolatzaileek.

Bero zapari aurre eginez, hirurehun bat pertsona elkartu ziren herri bazkarian, eta aurreikusitako beste jolas batzuk alde batera utzita, ur-gerrak arrakasta handia eduki zuen gaztetxoaren artean.



DISNEYLAND-ERA BIDAIA JOLAS ETA SOLAS LEHIAKETAKO IRABAZLEENTZAT



Ezkerrean, lehiaketako partaide batzuk eta ekimenaren sustatzaileak; goian, Itxaso Torre

Familia euskaldunak biltzea eta elkarren artean euskaraz berba egiteko ohitura sendotzea eduki du helburu Jolas eta Solas lehiaketak. Parte hartu duten familiak hainbat asteburutan elkartu dira era bateko zein besteko abileziak neurtzeko. Azken egunean sukaldaritza froga egitea tokatu zitzaizen eta saio guztietako puntuak bildu ondoren, Itsaso Torrek eta bere aitak eraman zuten sari nagusia, Disneyland Pariserako bidaia. Sari banaketan izan ziren alkatea, euskara zinegotzia eta ekimena babestu duten elkarteetako ordezkariak.



hamabostean
behin!

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz

dirulaguntzak

lagundu nahi baduzu
hauxe da gure kontua

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676

UK Uribe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua
48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz
tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31

[larrabasterra]jaietan]

Karmenak ere laster datoz

Hilaren 14an aireratuko da txupina eta
Larrabasterrak hartuko du jaien lekukoa



Hilaren 14an Gatillazo taldeak joko du Urgitxieta plazan

Karmengoek hartuko dute San Pedroen lekukoa. Larrabasterra izango da orduan jai zaleen topaleku. Uztailaren 14an hasi eta lau egunez Urgitxieta plaza, Urko kiroldegia eta txosna gunea izango dira hamaika jardueren festa gunek. Jaien lehenengo egunean 19:00etan ipini dute koadrilen jaitsierarako hitzordua, eta ondoren umeentzako "Discomovida" ikuskizuna antolatu dute. Gauean Ciudadano Kain eta Gatillazoren kontzertuak aurreikusten dira. Hurrengo egunean koadrilen jaitsierra ordu erdi lehe-

Bazterra musika bandaren emanaldia, Basajaun taldeagaz erromeria... Eta jaietako amaiera emateko marmitako txapelketa, jolas parke erraldoia, Kiñu taldeagaz erromeria, kadeteen txirrindulari lasterketa, eta abar egongo da uztailaren 17an. ^m

Ekitaldi batzuk

- **Discomovida.** Umeentzako ikuskizuna. Poco Pico taldea. Urgitxieta plaza. Uztailak 14, 20:00.
- **Ciudadano Kain eta Gatillazoren kontzertuak.** Urgitxieta plaza. Hilak 14, 22:30.
- **Bike trial Show.** Txirrindularitza erakustaldia. Urgitxieta plaza. Hilak 15, 19:00.
- **Katiuska zarzuela.** Urko kiroldegia. Hilak 15, 20:00.
- **Betizuak izar artean.** Urko kiroldegia. Hilak 16, 19:30.
- **Los Moñas eta Urgabe taldeen kontzertuak.** Txosnak. Hilak 15, 22:30.
- **Marmitako lehiaketak.** Urko kiroldegia. Hilak 17, 10:00-13:30.
- **Mariachi Garibaldi taldeagaz jaien amaiera.** Hilak 17, 20:30.

nago izango da, Iker Lezeta eta Alberto Gomez txirrindularien Bike Trial Show erakustaldia ez galtzeko. Gauerako, besteak beste, Urgitxieta plazan Lisker taldeagaz erromeria egongo da. Karmen eguna ekitaldiz beteta dator: Barinatxe taldeagaz kalejira, umeentzako puzgarriak, jumping, euskal dantzak Urdaibai taldeagaz, Uribe-

[sopelana]

Isabel Guezuraga > irakaslea

"Ezin gara alor batera mugatu, hainbeste gauza daude munduan egiteko, hainbeste aukera..."



38 urte dauzka Guezuragak eta Sopelanan bizi denetik (2 urte) ez du aspertzeko tarterik eduki

Irakasle, aktore, olerkari, irati esatari, irakurkizale eta bidaiazale amorratua... gaxa da Isabel Guezuraga mungiarren gogoak eta egindakoak bi berbatan azaltzea. Azken 2 urteen ganean egin dugu beragaz berriketan, Sopelanan bizitzen daren tarteaz, lapiko askotako burruntzalia izan da-eta.

Irakaskuntza du lanbide, Aixerrota Ikastetxean (Getxo) Gizarte, Euskera eta Kultura Klasikoko eskolak ematen ditu. Alabaina, beharretik kanpo hamaika zale-tasun dauzka. Idaztea du gogoko eta bere olerkiek lehiaketa piloa irabazi dute, "esaterako, aurten Sopelanan antolatu diren 2 olerki lehiaketak eta Amodiozko Gutunena", diosku. *Alborada-Goizalde* aldizkariagaz ere kolaboratzen du berriak euskaratzen, eta euskal literatura, antzerki edo erakusketen gaineko artikuluak idazten; gainera,

inoiz bere olerkiren bat ere argitaratu izan du bertan. Guezuragaren berbak eta ahotsa uhinetan ere hedatzen dira, Gorliz Irratian *Maremagnum* magazin kulturala (eguate-netan, 16:00etan) zuzentzen du-eta. Antzerkian ere jardun du, "orain Lauaxeta poetaren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko mungiarrek prestatu duten antzezlanetan nabil". Bestalde, pare bat iragarkitako, *Goenkale* telesailako "Maritxu", eta hainbat film laburretako aktore izan da: *Vampirizado*, *Clave eclipse*, *La apuesta*, *Historias de terror*... Azken 2 urteotan Guezuragak egin-dako batzuk dira horiek, eta berak aitortu legez, "Sopelana etortzeak bizitasun izugarria eman dit gauzak egiteko; konturatu naiz ezin garela alor batera mugatu, hainbeste gauza daude munduan egiteko, hainbeste aukera, askotan ez ditugu aprobetxatzen". ^m

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

ZUTARRI

TABERNA ETA KAFETEGIA

GATZARRIÑE, 12A LO.
(LARRABASTERRA METRO GELTOKIA)
TF: 94 676 33 17

LAIKAK
Taberna

Bentatu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94.6760328

ANDER
DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email.: sopela@ikastola.net

JATETXE BEGETARIANO

- Eguneko menuak
- Asteburuetan menu bereziak

Sertutxa 4, Sopela
Telf. erreserbak: 645 732 991



*non hartz
jan eta edan*

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Uda Gazte

programaren barruan
ekitaldiak gogotik

Berangoko Udalak 13 eta 17 urte bitarte-ko gazteentzako Uda Gaztea programa martxan jarriko du hil honetan. Uztailearen 5etik 21era bizikleta, piragua, eskalada, surf, hipika eta break dance lantegiak eta irteerak antolatu dituzte. Jarduerak astelehenetik eguenera egingo dira 17:00etatik 20:00-etara eta Santa Anako kultur etxea izango da topagunea. Ekitaldi guztietan parte hartu gura duten berangoztarrentzako 102 euroko prezioa dauka programa osoak, eta gainontzekoek 340 euro ordaindu beharko dute. Hilaren 5ean bizikletaren inguruan antolatuko dute eguna (15 euro berangoz-tarrek /besteek 30 euro); hurrengo egunean piraguan ibiliko dira (15 euro/30 euro); San Fermin egunean eskalatzeraz joango dira (15 euro/30 euro); surf egitera uztailearen 11tik 14ra (60 euro/120 euro); zaldian ibiltzera hilaren 18an (15 euro/30 euro) eta break dance lantegia hilaren 19tik 21era emango dute (50 euro/100 euro). m

Kultur Etxea: 94 668 21 43



TRABUDU
TABERNA

Jai giro jatorra, zatoz!

Trabudu kalea 1 • ASTRABUDUA
T. : 94 467 48 28

Ekaitz Hernandez > Split 77 taldeko baxu jolea

“Taldekideak musikari aurretik lagunak gara”



Split 77 taldeko baxua. www.split77.com

Azken 8 urteotan Berango dauka bizileku Split 77 taldeko baxu jole Ekaitz Hernandezek. Orain 6 urte sartu zen taldean, 16 urte gaz. Bi disko dauzka kalean Deustuko taldeak: Antenna (Gaztelupeko Hotsak, 2002) eta Mentura (Noizpop, 2004): euskaraz lehenengoa, eta bigarrena ingelesez. Azkena Rock Jaialdian egongo dira (Gasteiz) eta hirugarren lana presatzen dabilta.

—Noiztik zabilta baxuari lotuta?

—Oso gustuko nuen etxean musikaren gai- netik baxua jotzea, eta 15 urterekin erosi nuen lehenengo baxua, lehenengo soladatar-ekin: 10.000 pezeta. Maisu on batekin eman nituen lehenengo pausuak: Kike Mora. Geroago, Andres Isasi Musika Eskolan ibili nintzen kontrabaxua ikasten: jazz eta mundu klasikoari begira. Interesgarria izan zen, baina ezin zara estilo guztietan ibili; nahiago dut

burua gauza bakar batean eduki eta hor jarri indar guztiak. Musikarekin nire lehenengo kontaktu “serioa” Split 77rekin izan da.

—Beste musikari batzuk ere kolaboratu duzu, berbarako Txuma Murugarrenegaz?

—*Hegazkinen ariman* abesti pare bat grabatu nituen. Disko hartan, Txumak kontuan eduki zuen Rafa Rueda produkzio lanetara-ko eta Rafak nire izena proposatu zuen, han- dik aurrera Txumak egin dituen lan guztie-

“Euskara ez da muga musika-proposamen bat nazioartera eramateko”

tan jardun dut, estudioan eta zuzenean. Txumak eta biok ikuspuntu musikal antze-koa daukagu, elkarrekin egiten dugun lana erraz atera eta emankor gertatzea egiten du honek. Oso interesgarria da niretzat, beti musikari onez inguratuta dabilelako Txuma. Beste talde batzuekin ere egin ditut kolabora- zioak, adb.: Pi.L.T. Baina beti izan dira kola- borazio puntualak. Estudioan asko ikasi dut, batez ere teknikari eta lagun Jose Lastrarekin: ondo ezagutzen du nola jotzen dudana eta badaki noiz egiten ditudan gauzak ondo, baita hobeto nola egin ditzakedan ere. Ostera, Split 77 taldean egotea oso inportan- tea izan da. 4 partaideon artean hezi gara musikalki; musikariak gara, baina horren aurretik lagunak.

—Azken lanean ingelesez ere abesten duzue —Splitkook beti eduki dugu harreman estua ingeles musikarekin (beharbada entzu- ten ditugun talde gehienek ingelesez egiten dutelako), baina beti argi eduki dugu talde euskalduna izan nahi dugula. Eskoziako Go North jaialdian egon ginen (2003), espe- rientzia ezin hobea, asko ikasten da, ametsa izan zen: Paul Weller edota Coldplay bezala-ko musikarien artean geunden. Eta kontura- tu ginen euskara ez dela muga musika-pro- posamen bat nazioartera eramateko. Hilabete hartan Musik Week aldizkariarekin datorren CDan *Antennako* “Malkoa” kanta sartu zuten. m

Jorge Lopez de Gereñu > margolaria

“Askok gaitzesten duten kultura globala itzela da”



Bilboko Begoñako tuneletako diseinua berak egin du eta Frantzian ere egin ditu mural batzuk

Arrietara hondartzan (Sopelanan) orain- tsu diseinatu duen muralaren harira Jorge Lopez de Gereñugaz, Barland izenagaz eza- guna, egon gara berbetan. Algortarrak 7 urte daroaz Plentzian bizitzen eta bere mar- goen, muralen eta diseinuen gainean gen- biltzala musika beltza eta surf zale amorra- tua dela azaldu du, eta bere lanetan ere pisu itzela daukatela zaletasunok.

Arte Ederretan lizentziaduna da eta Diseinua ikasi zuen Bartzelonan, Fran- tzian, AEBetan... Bere margoak AEBetako hainbat galeriatan erakutsi ditu. “*Post-pop edo neo-pop estiloa da nirea, margo figurati- boak; publizitateak eta diskoen portadak era- gin handia daukate nire lanean*”. Musikaren iturritik asko edaten du Lopez de Gereñuk: “jazz, hip-hop... LG Funk Dja naizenean ipintzen dudana musikatik batez ere; garai batean musika mundutik oso hurbil egon nintzen hip-hoparen jaiotza eta urrezko garaian; hala ere, nire lehenengo musika esti- loa jazzaz denez, bien artean ibili naiz beti eta nire margoek ere harreman zuzena dau- kate horiekaz; disko bilduma zale amorratua ere banaiz, 12.000 disko edo dauzkat, egin

kontu! Eta oro har, musika beltza dut gogo- ko”. Bere zaletasun horrek hainbat aldizka- ri eta foroetan idazteko aukera eman dio Gereñuri, AEBetako agerkarietan, *Signal to Noise* edo *Ear*, edo Tomajazz eta Orga- nissimo eztabaida-guneetan.

Bestalde, ia 30 urte daroaz surf egiten, Barinatxan hasi zen eta bere hondartza dela aitortu du Barlandek, baina bere ola- turik gogokenak Safin (Maroko) daude. Bere musika sorlekuak Bahiako Salvador (Brasil), New Orleans (AEB) eta Nia- funke (Mali) dira. Eta New Yorkera jotzen du margozteko etorriaren bila. Munduan zehar ibili behar dugula deritzo, “*kultura- ren esparrukook bidaiatu egiten behar dugu, ausartu eta kanpora irten, ahal du- gun guztia ikusi eta ezagutu, eta horrek gu- gan eragina eduki dezan utzi; askok gai- tzesten duten kultura globala deritzona niretzako itzela eta liluragarria da, homoge- neotasun puntua da eragozpen bakarrene- takoa*”. Amaitzeko, Arrietarako irudiaren diseinuan graffitiari lekua egin dio, eta ka- leko arte hau erakundeek ulertu eta bul- tzatzea nahiko luke. m



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

T: 94 676 07 15



Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

ERTIBIL ERAKUSKETA
GORLIZEN, HILAK 11-22

Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen duen arte plastikoen Ertibil lehiaketara aurkeztutako hainbat artelan Gorlizko kultur etxean egongo dira ikusgai uztailaren 11tik 22ra. Aurten 114 artistek hartu dute parte Ertibil lehiaketan eta 20 artisten sormen lanak aukeratu dituzte Bizkaiko hainbat herritan erakusteko. Aurten Ertibilek saritu dituen 3 artistak EHUko Arte Ederretako ikasleak izan dira: Abigail Laskoz, Amaia Lekerikabeaskoa eta Lide Zaltzada.

URDULIZKO HERRIKO
TABERNA BERRIRO
ZABALDU DUTE

Uribe Kostako Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren Oihu@ agerkari elektronikoak jakinarazi duenez Urdulizko Herriko taberna zabalik dago berriro ere. Tarte batean itxita egon ostean, asteburuetan, oraingo eguerdietan eta gauetan zabaltzea lortu dute antolatutako txandei esker.

ERDI AROKO AZOKA
GORLIZEN

Uztaileko bigarren aste-akabuan, hilaren 8, 9 eta 10ean gorliztarrek Erdi Arora arte egingo dute bidaia, eta hiru egunetan zehar Eliza plaza itxuraldatuko da: artisauen salmahaiak, jakiak eta edariak dastatzeko eta sendabelarrak ersoteko postuak, erakustaldiak, etab. egongo dira.

PLENTZIA
IX. Perretxiko astea hilaren 5etik 10era



Cantharellus lutescens perretxikoaren ale batzuk

Plentziako Perretxiko eta Itsaski taldeak IX. Perretxiko astea antolatu du uztailaren 5etik 10era, Plentziako Udalaren eta Bizkaiko Perretxikozaleen Federazioaren laguntzagaz.

Hilaren 5ean Sandro Bruniren (Barcelo Nervion Hoteleko sukaldaria) perretxikoz egindako mokaduak dastatzeko aukera egongo da (19:00). Hurrengo egunean *Trufaren ehiza* filma eskainiko dute (12:00 eta 19:00). Uztailaren 7an Eduardo Fidalgok (Getxoko Basozaleak elkarteko kide) “Boletus generoa

ikusiz zelan sailkatu” hitzaldia eskainiko du, eta ondorengo egunean “Udako perretxiko jangarriak” berbaldia Josue Rodriguezen (biologoa) ardura izango da (19:00). Larunbatean *Onddoak* eta *Onddoak eta gizona* filmak emango dituzte (12:00 eta 19:00). Ekitaldi guztiak Goñi Portal kulturalean egingo dira. Hala bada, perretxikoen gainean gehiago jakin edota aho-zerua gozatu gura izanez gero Plentzian dago hitzordua. ^m

Uzt. 3 - 17

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37 • Fax.: 94 491 58 31

ERAKUSKETAK

PLENTZIA
► **Beatriz Solerren lanak.** Erakusketa gela. Hilaren 15era arte.
► **Yolanda Urkiagaren lanak.** Erakusketa gela. Uztailak 16-30.

GORLIZ
► **Aratz dantza taldearen XXV. urteurrena.** Eloisa Artazako Erakustaretoa. Hilaren 10era arte.
► **Ertibil.** Eloisa Artazako Erakustaretoa. Uztailak 11-22.

URDULIZ
► **Margo erakusketa.** Kultur Etxeko lantegietako lanak. Hilak 4-14.

SOPELANA
► **Sopelanako argazkiak.** Erakusketa gela. Abuztuaren 31ra arte.

ZINEMA

PLENTZIA
► **El aviador.** Helduentzako zinea. Erakusgela. Uztailak 8, barikua. 22:00.
► **Retrato de abril.** Gazteentzako zinea. Erakusgela. Uztailak 9, zapatua. 18:00.
► **El vuelo de Fenix.** Helduentzako zinea. Erakusgela. Uztailak 15, barikua. 22:00.
► **Las nuevas aventuras de Gustavo.** Umeentzako zinea. Erakusgela. Uztailak 16, zapatua. 18:00.

ANTZERKIA

LARRABASTERRA
► **Disco Movid.** Poco-Pico taldea. Umeentzako ikuskizuna. Urgitxieta plaza. Uztailak 14, eguna. 20:00.



Argazkian, Igor Elortza

► **Bertsolaritza**

Itzal handikoak Bertso Jaialdi Mundialean

Azkenengo Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko txapelduna, txapeldun ordea eta hirugarren postua lortu zuten hiru gipuzkoarrek punta-puntako 3 bizkaitar izango dituzte aurrez aurre: Bizkaiko txapelketako (2004) txapelduna eta txapeldun ordea, eta txapel eske indartsu datorren algortarra. Biotz Alai plazak bertso saio itzela hartuko du hilaren 8an, eta dagoeneko igarri ez duenarentzako hurrengo bertsolariek jardungo dute: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Igor Elortza, Unai Iturriaga eta Xabier Paia. Kolosala izango da! esango luke baten batek.

• **Non:** Biotz-Alai plaza (Algorta) • **Noiz:** hilak 8 • **Ordua:** 22:00

SOPELANA
► **El Pisito.** Trapu Zaharra konpainia. Udaletxeko plaza. Uztailak 3, domeka. 20:00.
► **Les diables noirs.** Deabru Beltzak taldea. Uztailak 3, domeka. 22:00.

MUSIKA

GORLIZ
► **Abesbatzen kontzertua.** Julen Ezkurrari omenaldia. Euskal Herriko Unibertsitateko eta Lirain abesbatzak.

Gorlizko Eliza. Uztailak 9, zapatua. 20:00.
► **Charo Pikazo sopranoa.** Gorlizko Eliza. Uztailak 16, zapatua. 20:00.

LARRABASTERRA
► **Ciudadano Kain eta Gatillazo.** Urgitxieta plaza. Uztailak 14, eguna. 22:30.

► **Katiuska zarzuela.** Urko kiroldegia. Uztailak 15, barikua. 20:00. Sarrerak Hall Kulturalean.
► **Los Moñas eta Urgabe.** Txosna

gunea. Uztailak 15, barikua. 22:30.
► **Lisker.** Erromeria. Urgitxieta plaza. Uztailak 15, barikua. 00:00.
► **Betizu Izar artean.** Umeentzako ikuskizuna. Urko kiroldegia. Uztailak 16, zapatua. 19:30.
► **Basajaun.** Erromeria. Urgitxieta plaza. Uztailak 16, zapatua. 00:00.
► **Kiñu.** Erromeria. Urko kiroldegia. Uztailak 17, domeka. 16:30.
► **Mariachi Garibaldi.** Uztailak 17, domeka. 20:30.

BESTEAK

BARRIKA
► **Umeentzako ipuin kontaketa eta liburuen mailegua.** Plaza. Uztailak 9, 16, 23 eta 30 (zapatuak). 10:00-14:00 eta 16:30-19:30

LARRABASTERRA
► **Bike Trial Show.** Iker Lezeta eta Alberto Gomez txirrindularien erakustaldia. Urgitxieta plaza. Uztailak 15, barikua. 19:00.
► **Marmitako lehiaketa.** Urko kiroldegia. Uztailak 17, domeka. 10:00-13:30.
► **Kadeteen txirrindulari lasterketa.** Uztailak 17, domeka. 17:00.

GORLIZ
► **Erdi Aroko azoka.** Eliza aurreko plaza. Uztailak 8-10.

URDULIZ
► **Hondartzetako ludoteka.** Umeentzako jarduerak. Antsonekoa plaza. Uztailak 7, 14 eta 21 (eguenak). 11:00-14:00 eta 16:30-19:30.

PLENTZIA
► **IX. Perretxiko astea.** Mokadu dastaketa, hitzaldiak eta zine emanaldiak. Plentziako Perretxiko eta Itxaski elkartearen ekimenez. Goñi Portala. Uztailak 5-10. (ikus 22 orrialdea)

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

Q V S
28 NIVERSARI
URTEURREN

KLIMATIZAZIO
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
tel. 94 668 15 51
Taxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@euskalnet.net



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Jaietako pregoiak

Jaien berri emateko eta ekimen pribatuz *Pregon de fiestas* izeneko liburuxkak argitaratzen ziren lehen. Liburuxkak baino liburuak zirela esan daiteke, izan ere publizitatearen artean elkarrizketak, erreportajeak eta jaien programa zabal-zabal azaltzen ziren agerkari potolo haietan. Irudiok 1955 eta 1973 urteen artean argitaratu ziren pregoi horien azalak dituzue, diseinu grafikoaren bilakaeraren adibide.

Irudiak: **Getxoko Udal Liburutegia**



Azken urteotan barra-barra agertu zaizkigu Erdi Aroko azokak eta enparauak. Isil-isilik ailegatu dira, ia inor kon-turatu barik, baina gure herrietako kultur-programazioan ezinbesteko txokoa eskuratu dute. Zenbakiak ikaraga-riak dira: Uribe Kostak hamar herri eta bost azoka ekainetik irailerako bitartean. Erdi Aroko lau eta Erre-nazimenduko bat, hain zuzen. Honetan ere, adarrak eta espezializazioak garrantzitsuak dira. Guk geuk sakona-go aztertu gura izan dugu azoka hauen mundua. Kultur-adierazpidez jantzitako negozioa, edo negozioa makulu daukan kultur-adierazpidea? Biak aldi berean, seguruenik.

Iraganera jauzia

Erdi Aroko azokak

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Uda oparoa

Ekainaren akabuko astegoenagaz batera hasi zitzaigun azoka “sasoia” Uribe Kostan. Errenazimendukoa izan zen Berangoko hura; gainerakoak, Erdi Arokoak. Aurten lau izango dira. Lehenengoa aste-akabu honetan bertan egingo da, Erandion (uztailaren 1, 2 eta 3an, hain justu). Ondoren, Gorlizkoa (uztailak 8-10), Sopelanakoa (abuztuak 6-7) eta Getxokoa (irailak 16-18) izango dira. Plentziak ere antolatu zuen berea orain dela urte bi, baina ez dute errepikatu. Uda “ertarotsua” datorkigu.



Gure eskualdean, Sopelana izan zen ai-tzindaria. Aurtengoa seigarren Erdi Aroko azoka izango dute, eta denetan jende olde politik ibili dira. Hori da azoka hauen ezaugarrietako bat: arrakasta -bisitari ko-purutan neurtzen dena behintzat- segur-tatuta edukiten dute. Sopelanaren bidea hartu zuen hurrengo herria Getxo izan zen; irailean laugarren edizioa egingo da. Apurka, beste herri batzuk ere konkistatuak izan dira Uribe Kostan, Espainiako estatu osoan bazalaxe, eta dagoeneko eskualdeko herrien erdiak dauka bere merkatua.

Estatuan 20ren bat enpresa dabil azoka historikoak antolatzen. Euskal Herrian ba-da baten bat, baina kopururik handiena

«Artisauak, ogibidearen krisiak jota, merkatu mota hauetara lerratu dira»

Mediterraneo itsasertzean dago, nonbait. Hala ere, nahiko sakabanatuta dago dena. Aurten Uribe Kostara etorriko diren en-presetan, Kataluniako bat, Valentziako bat eta Toledoko bi topa ditzakegu, esaterako. “*Eurak ibiltzen dira guri deika, euren burua eskainiz*”, diosku hemengo Kultur Etxe ba-teko behargin batek. Eta udalak pozik, gaineratu beharko.

Gironako Alquimia Medieval enpresak antolatzen du Getxoko merkatua. Bertako

kide Manuel Jimenezek dioskunez, “*arti-sauen beharrianek eragin dute azoka mota hauen zabalkundea; saltzeko beharrak, alegia*”.

Berangoko Errenazimenduko azoka AMB enpresa valentziarraren eskutik etorri zitzaigun. Antonio Mari zuzendariaren ber-betan, “*merkatu alternatiboen gainbeherak ekarri du Erdi Aroko azoken eta antzekoen agerpena; bizimodua ateratzeko era bat da, noski*”. Artisauak, ogibidearen krisialdiak jota, merkatu mota berri honetara lerratu dira, arrakasta itzela daukatela ikusita. Su-tearen lehenengo txinparta Erdi Aroari lotutako ikuskizunak eskatzen zituzten udaletxeek piztu zuten.

Gaur egun, perretxikoak bezala zabaldu zaizkigu merkatu historikoak. “*Orain bost urte lau enpresa baino ez ginen Espainian; gaur egun, hogeiren bat*”, dio Manuel Jimenezek. Beraren ustez, goia jo du sek-toreak, eta hasi beharko zaio globoari haizea joaten. “*Batez ere, profesionalak ez diren enpresa asko sortu delako*”.

Getxoko Kultur Etxeko arduradunek berretsi egiten dute Jimenezek aditzera emondakoa. “*Ondo beginatu behar da zein*



Argazkietan, iaz Getxon egin zen Erdi Aroko azokan atera genituen argazki batzuk



enpresa ekarri. Giroa gura baduzu, ordaindu egin behar da”. Erdi Aroko azokei gagoz-kiela, guztiz betetzen da *merkea garesti* esamoldea. “*Ikusi egin behar da enpresak zenbat kobratzen dien artisauei. Asko bada, guk gutxi ordainduko dugu, baina herri-tarrek erositakoa garestiagoa izango da. Ho-rrelakoetan ez da girorik egoten*”. Eta zergatik

euskaratzen. Bestela, euskarak ez dauka ba-tere lekurik azoka hauetan”.

Kultura zabaltzea helburu

Enpresek, jakina, atarramendu bat bilatzen dute. Baina kultura sustatzearen ere ba-dabiltzala azpimarratzen dute, gugaz jardun dutenek behintzat. “*Enpresa askok* -dio An-

«Enpresek kultura sustatzearen alde dihardutela azpimarratu gura dute»

ez da kontratatzen hurbilagoko enpresarik? “*Hemengoek eta hangoek* -dio Getxoko Kul-tur Etxeak- *jende berdina kontratatzen dute azkenean. Guk, hori bai, euskal artisauak egon daitezela bultzatzen dugu. Hizkuntzari dagokionez, gurean aurten hasiko da paisajea*

tonio Marik- *50 artisau moztarrotu, ikus-kizunen bat ipini, eta badaukate azoka. Guk zerbait gehitu gura izaten dugu. Merkatu hauek jakintza bat zabaltzeko balio dezatela, garai baten barri emon diezaiotela bertana-tzen denari*”.

Erdi Aroaren diktadura

Erdi Aroa garai iluntzat aurkeztu izan zaigu beti. Erlijioak dena zeukan mendean, beldurra eta indarkeria ziren nagusi, jakintza eta adimena baztertuta zeuden... Zergatik erakartzen gaitu horrenbeste halako aro zakar batek? “*Garai iluna izanagatik, jendeak gehien ezagutzen duena ere bada*”, uste du Alquimia Medievaleko Manuel Jimenezek. “*Hala, bisitari gehiago edukiten dituzte Erdi Aroko azokek beste garai batzuetan girotutakoek baino*”. AMBko Antonio Marik Erdi Aroak literaturan

«Erdi Aroko azokek arrakasta handiagoa edukiten dute beste garai batekoek baino»

eta zinean eduki duen garrantzia aipatu du horren arrazoitzat. “*Beste azoka motek ez dute hainbesteko arrakastarik, inondik inora. Erdi Aro berbek erkarri egiten dute, nonbait*”.

Dokumentazioaren garrantzia

Zelangura, azoka historikoak lantzen dituzten enpresek eskaintza zabala edukiten dute. Daagoeneko ezagutu dugu, Berangon, Errenazimenduko merkatua, baina badira, esaterako, barrokoak edo antzinako itsasgizonengan oinarritutakoak ere. Garai bakoitzeko giroa ahalik eta zintzoen agertzeak lanak emoten ditu, noski. “*Guk badaukagu ikerlari talde bat*”, azaldu digu Antonio Marik, “*eta haiek arduratzen dira gauzak zuzen egoteaz. Kontzertu bat eginez gero, berbarako, musika egokia ipini behar da, garaiak nahastu barik*”.





Arrantzalea

Mikel Martinez

Argazki hau, eta horregatik daukagu gustuko, makina bat modutan irakur dezakegujla sentitu dugu: arrantzalea eta bere eskultura, denboraren iheskortasun etengabea, simetria...

GORPUZTI EGUNA PORTU ZAHARREAN, 2004

[berbetan]

Ainhua Arteta, *bel canto* mundua konkistatu duen gipuzkoarra, UK-ko orrialdeetara ekartzea lortu dugu oraingoan. Arteta oso gazte-rik -19 urtegaz- joan zen Italiara, eta handik New Yorkera, aitzak deskubritu zizkion gaitasunak lantzeraz. Ospea, hala ere, ez zitzaion 28 urtera arte ailegatu. 1993 zen, eta Artetak lehiaketa garantzitsu bi irabazi zituen hamabost eguneko epean: Metropolitan Opera National Council Auditions, New Yorken; eta Placido Domingok antolatutako Concours International de Voix, Parisen. Hiru urte lehenago zeukan eginda debuta operan, baina benetakoa arrakasta sari bi haiek emon zioten. Ordutik hona, mundu mailako erreferentzia izan da *bel canto*an. Azken hilabeteetan oso lanpetuta dabil, eta horregatik baldintza ipini zigun elkarriketa egiteko; guk idatzita bialdu itaunak, eta berak modu berean erantzun. Benetan frustrazioa sortu digu paradoxa horrek: goi-mailako abeslari bati elkarriketa egin eta bera- ren ahotsa entzun ez. Emoitzak merezi duelakoan gagoz, hala ere.

Ainhua Arteta

Ahots unibertsaldun tolosarra

Testua: **Unai Brea**

—Zergatik hasi zinen *bel canto*an?
—Ahotsari dagokiona amarengandik jaso dudala uste dut. Antzezpenarako sena, be-rriz, haren ahizpengandik, nire izebengan- dik. Geroago, gure aitarekin, musikak esa- nahi intelektualagoa hartu zuen niretzat; bera ohartu zen nigan egon zitekeen po- tentzialitateaz. Haurra nintzela hasi zen guztia, aitzak oparitutako Maria Callasen disko bat entzuten. Maitemindu egin nintzen ahots hark zeukan komunikazio- ahalmenarekin, eta oraindik ere miretsi egiten dut. Haren antzezpenak entzutean zeharo hunkitzen naiz; benetan aparta da.
—Placido Domingori ere asko zor ei diozu...

—Placido Domingo artista zein pertsona aparta da. Askotan eduki dut berarekin lan egiteko aukera, eta atsegin handiz egin dut. Haren apaltasuna eta ikasten jarrai- tzeko gogoa, lortu duen arrakasta lortu eta gero, zinez dira mirestekoa. Gainera, kon- promisoa hartzen du bere lehiaketa irabaz-

ten dutenen ibilbideak arretaz jarraitzeko eta, niri behintzat, asko lagundu dit, zer egin behar nuen eta zer ez aholkatuz. Orain dela gutxi, elkarrekin kantatu ge- nuen Libanoko Baalbeck hiriko aztarna erromatarretan (bide batez esateko, sekula ikusi dudana antzezleku naturalik zirrara- garriena) eta zoragarria izan da berriro el- kar aurkitzea. Zalantzarik gabe, inoiz izan den abeslaririk erabatekoena izan zela gogoratuko du Historiak.

—Opera abeslariok asko lantzen duzue ahotsa. Zurea oso desberdina da orain, Italiara joan baino lehenago zeneukana- gaz konparatuta?
—Uste dut nire ahotsak heldutasuna eta gorputza hartu dituela. Normala da, urte- en poderioz ahots guztiei gertatzen zaie eta. Hala ere, soprano liriko eta soprano

arinentzat idatzitako errepertorioa kanta- tzen segitzen dut. Erregistro zorrotzean eroso egonez gero, erdibideko aberastasu- nak aukera handiagoak ematen ditu, eta beraz antzezpena aberastu daiteke.
—Bide batez... Zertan datza ahotsa lan- tzea? Hau da, zertan datza kantu-teknika eskolak?
—Teknika egokirik gabe, abeslari batek ezin du sentitzen duena adierazi, beraz teknika ikastea oinarri-oinarrizkoa da. Baina tek-

“Teknika hutsa ez da nahikoa entzuleekin bat egiteko”

nika hutsa ez da nahikoa entzuleekin bat egiteko, soinu-rik ederrenak ere, sentimen- durik eta adierazgarritasun-rik gabe, ez due- lako inor hunkitzen. Soinu ederra besterik ez da. Kitto. Ni neu soinu eder bat galtze- aren aldekoa naiz, adierazpen dramatiko-aren mesedetan bada. Norberaren kantuak ez badu antzeztan ari den pertsonajearen



emoziorik adierazten, konposatzaileak harrengan jarritako mezuaren zati handi bat galtzen da.

—Gerta liteke oso ahots ona daukan inor opera abesteko gauza ez izatea? Zeozer berezia dauka operak?

—Ahots ona daukaten abeslari guztiek kanta dezakete opera. Baina batzutan ez dute uste bezain arrakasta handia lortzen. Esan berri dudanez, antzezpenak ahotsak adina garrantzia daukalako da hori. *La*

“Abeslari batzuek obsesioa dute beren ahotsaren osasunarekin; ulertzekoa da”

*Traviata*ko protagonisten kasuan esaterako, pertsonajea sinesgarria izan ezean -ikuspun-tu dramatikotik-, istorioak indar guztia gal-tzen du.

—Zelan zaindu behar da ahotsa?

—Ahotsa dohaina da, eta hura zaintzeak lana, disziplina eta nekeren bat eskatzen ditu. Abeslari batzuek obsesioa dute beren ahotsaren osasunarekin, eta nik ulertu egi-ten dut hori; izan ere, ahots-kordak gure gorputzaren atal bat dira, leku guztietara eramaten ditugu eta eguraldi aldaketak, aire egokitua, gehiegizko lehortasuna edo hezetasuna eta abar jasaten dituzte. Ni, pertsona arrunt baten modura neure bu-rua zaintzen saiatzen naiz, kontu honek

“Ahotsa da gehien adierazten eta gehien hunkitzen duen musika-tresna”

psikologikoki gehiegi eragin ez nazan. Saiatu egiten naiz jaki osasungarriak jaten, atsedean hartzen, zarata handia dagoen le-kuetan ez egoten eta, batez ere, kontzertu egunetan gehiegi ez hitz egiten.

—Aurrekoagaz lotuta... Abeslariek lo as-ko egin behar dutela esaten da. Zenbat lo egiten du Ainhua Artetak egun arrunt ba-tean? Eta bide batez, kosta egiten zaizu estreinaldi baten aurretik lokartzea?

—Esan dudanez, atsedena funtsezkoa da ahotserako. Hala, zortzi orduko loadia

egin behar da gutxienez. Eta gehiegikeria-rik ez, jakina. Nik, gainera, ariketak egiten ditut gogoa eta gorputza lasaitzeko.

Bestetik, oso ondo egiten dut lo estreinaldi baten aurretik, baina ondoren ez. Ulertzekoa da, adrenalinak eta urduritasu-nak ez dutelako ekitaldia bukatu bezain laster alde egiten. Horregatik, askotan eki-taldien osteko orduak erabiltzen ditut bi-daiatzeko, eta hurrengo egunean atsedean har dezaket.

—Gaztetan Italiara joan zinen (gura ze-nuelako ala behartuta, hori ez dakit), bes-te asko bezala. Olatz Gorrotxategi algotarra datorkit burura, esaterako. Gero, New Yorkera joan zinen. Hain gaxa da hemen aurrera egitea?

—Bizitzaren gorabeherak eraman ninduten Italiara eta ondoren New Yorkera, 19 urte nituela. Eta New Yorkek eskaintzen dituen aukera zabalei esker, oso heziketa bete-a jaso ahal izan dut, bai ahots-irakasle-ei, bai errepertorio-adituei, bai antzezpe-nari dagokienez. Nik, hain zuzen, suertea izan nuen, Actor’s Estudio ospetsuan es-kolak hartzeko aukera eduki nuen eta. Gainera, munduko ikuskizun eskaintzarik

zabalena dago han, eta hori ere, zalantza-rik gabe, garrantzitsua da artistaren hezi-ketan. Baina hori guztia hala suertatu zela-ko egin nuen, Espainian ere oso irakasle onak daude eta.

—Italia da operaren gotorlekua. Zer ikasi zenuen han, hobeto kantatzen ez eze?

—Italia zoragarria da. Musika, eta artea oro har, eguneroko bizitza arruntaren zati dira han. Erroma edo Florentziako kalee-tatik ibiltzea denboran atzera egitea beza-lakoa da, artista handien irudimena piztu

zuen giro bera sentitzea da. Italian egonez baizik sentitu ezin den sentzazioa da. Ja-kina, giro hartan eta Italiako ahots-esko-la ospetsuko irakasleen laguntzaz, gauza asko ikasi nuen. Prestakuntza hori fun-tsezkoa izan zen nire ondorengo hezike-tarako.

—Opera abesteko, beharrezkoa da hiz-kuntzak jakitea?

—Oinarritzkoa da gure lanbidean. Ope-raren ohiko errepertorioa bost hizkuntza-tan dago: italiara, frantsesa, alemana, inglesa, eta gaztelania. Beraz, eta hizkun-tza horietan guztietan ez hitz egin arren, derrigorrezkoa da ahoskerari eta arau fo-netikoei buruzko oinarritzko ezagupideak edukitea.

—Elkarrizketa hau idatziz egitea eskatu diguzu, ikasteko denbora behar duzula-ko. Erreza da zure lana hainbeste bidaia, elkarrizketa eta abarregaz bateratzea?

—Egia esanda, ez. Batez ere, oraingoa be-zalako sasoietan, emanaldi asko baitauzkat bata bestearen ondotik, eta egitarau eta zuzendari desberdinekin.

—Opera gixiengo batentzat da?

—Kantuak, arteak bezala oro har, hunki-tu egiten zaitu ala ez zaitu hunkitzen. Ez da nahitaezkoa musikaz edo ahots-tekni-kaz asko jakitea. Gainera, ahotsa da ge-hien adierazten eta gehien hunkitzen duen musika-tresna; entzun eta gozatu besterik ez da egin behar. Nik New Yorkeko Me-tropolitan bezain leku ospetsuetan kanta-tu dut, eta baita hiri txikietan ere, non entzuleak lehen aldiz zihoazen emanaldi batera, eta haien erreakzioa beti da berdi-na, artista barneak hustutzen ari dela nabaritzen badute. Horretarako ez da azal-pen teknikorik behar.

—Zein musika entzuten duzu etxean, zer duzu gustuko?

—Edozein, opera izan ezik. Nire lanbidea dela-eta, ezin naiz lasai egon opera entzu-ten banago, beraz nahiago ditut musika sinfonikoa, piano emanaldiak eta, noski, herri musika. ^m

sk8 UKn Carlos Terreros skate Uribe Kostan argazki erakusketa

Satistegi kafea
Algorta
uztaila 2005

antolatzailea



uribe kostako aldizkaria

babesleak



aldizkaria etxean jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
Kalea & zenb.....Herria.....
e-mail.....Telefonoa.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro ☐ beste kopuru bat euro
Kontu zenbakia (20 digito).

0000 0000 00 0000000000

UK Uribe Kostako Aldizkaria

171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz
tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31



Eraispena Leioan

Akabuan bukatu dituzte Leioako Ospitalea izan behar zuen eraikinaren eraispen lanak. Bost hilabete eman dituzte beharrean 70eko hamarkadan egin ziren dorreak desagerrarazteko. Eraikinak planifikazio ezaren, diru-publikoaren xahutzearen, eta oro har, gauzak zelan egin behar ez diren monumentu izan dira. Orain inguru horretarako beste proiektu erraldoi bat iragarri dute politikoeak: 86.000 metro koadroko aisialdi eta negozioetarako gunea. Argazkiokaz eraispen lanen nondik norakoak erakutsi gura izan dizkizuegu.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**









Zinema kritika zientifikoa al da? (II)

Aurreko alean izenburu honek duen galdera bera egin genion geure buruari. Honek sortzen dizkigun zalantzak ahal den neurrian argitzzen saiatuko gara. Saiakera honetan gutxienez bi gauza desberdin kontuan hartu beharko genituzke: lehenengoa, zinema zientzia eta artea dela, eta ikuspuntu honetatik ikasten eta ekoizten dela; bigarrena, zinema kritikoen artean film berdin baten aurrean sortzen diren desberdintasunak askotan oso nabarmenak eta sakonak direla. Beraz, desberdintasun hauek zergatik sortzen diren galdetu beharko genioke geure buruari. Har dezagun zinemaren atal zientifikoa dena, hau kontuan harturik kritikoen artean sortutako desberdintasun ikaragarri horiek ez lirarteke hain handiak izan behar, nahiz eta haien arteko prestakuntza eta ezagupen maila desberdina izan. Zer esan nahi dugu honekin, bada, zinema kritikoek ikuspuntu zientifikoa ardatz nagusi bezala hartuko balute, gure uste apalean iritziak ez lirarteke hain desberdinak izango. Demagun hedabide batek izarrek erabiltzen dituela film bat nolakoa den adierazteko, erraz proposamen hau topa dezakegu: 0, hobe dela etxean gelditzea adierazteko; gero izarrek agertuko dira, bat, bi, hiru, lau eta bost, azken honekin lan bikaina dela adierazteko. Beraz, eskala zerotik bost izarretara doa. Ez da batere zaila izango zinema kritikoen artean sortutako desberdintasunak ikustea, esaterako aipatu genuen *Dirigido* aldizkarian. Iritzi desberdin nabarmen hauek nolabaiteko tesi bat egitea eskatzen digute. Beraz, desberdintasun hauek arte eremuan oinarriturik egon behar dira, eta honek zinema kritikak duen osagai subjektibo handira eramaten gaitu. 4

Gaurik laburrena

Almandoz, Muñoz, Beraetxe, Imaz, Aldarondo eta Kintanaren euskarazko filmak

Uztailaren lehenengo eguaztenean eta eguenean, hilak 6 eta 7, Zazpigarren Ar-tearen magiak sorginduko ditu Getxoko gauak. Film laburrak pantaila handian ikus daitezkeen gauak dira, eta zuzendari euskaldu-nen lanak egueneko txandan eskainiko dira. Lehenengo egunean gaztelerazko 11 film labur emango dituzte, eta bigarren egunean euska-razko 7 lan egongo dira ikusgai. Emanaldiak Biotz Alai plazan izango dira, 22:00etan.

**«Euskarazko 7 film
laburren emanaldia
uztailaren 7an izango da»**

Uztailaren 7an gaztelaniazko hurrengo filmak emango dituzte: *Días de cine* (Borja Perez, 6 min), *Un minuto* (Ruben Ontiveros, 1 min), *La caja 506* (Borja Perez, min. 1), *Contar Ovejas* (Alberto Gonzalez, 3 min), *Fatal Frisbi* 2 (Ruben Ontiveros, 5 min), *Kinky Hoodoo Voodoo* (Velasco Broca, 8 min), *Niño Viudo* (Toni Bestard, 22 min), *El soñador* (Oskar Santos, 14 min), *Física II* (Danel Sanchez Arevalo, 20 min), *Enamos pocos* (Borja Co-beaga, 16 min), *Diez minutos* (Alberto Ruiz Rojo, 15 min).

Euskarazko film laburren artean dagoeneko zine munduan ibilbide luzea daukaten zuzendarien lanak egongo dira ikusgai: *Orreagako*



Gauaren kartela

guda (Asier Imaz, 18 min), *Amuak* (Koldo Almandoz, 9 min), *El salto de Beamon* (Ane Muñoz, 15 min), *Annesiak* (Angel B. Aldarondo, 5 min), *Hana!* (Emilio de la Rosa, 3 min), *Ze Krixto!!!* (Iñigo Kintana, 15 min) eta *Ostertx* (Iñaki Beraetxe, 15 min). ^m

Ez galdu > *Familia rodante*



Hau da Argentinako zine zuzendari Pablo Traperok zuzentzen duen hirugarren luzemetraia. Lehenengoa *Mundo grúa* izan zen eta bigarrena 2002 urtean pantailara eraman zuen *El bonaerense*. Berak zuzendu du gidoia eta garatzen duen istorioa, nolabait, bere haurtzaroan onarrizten da. Bere aitak zeukan tailerrean karabana bat egin zuen eta Argentinako urrutiko bazterretatik ibili zen bere familiarekin. *Familia rodante* komedia bat da oso ondo kontatuta eta antzezuta. Gijoneko Zinemaldian birramonaren papera antzezten duen aktoreak aktorerik onenaren saria jaso zuen eta Pablo Traperok zuzendaririk onenarena. Film honek 1.500 kilometroko bidaiairen gorabeherak, karabanaren barraun sortutakoak, kontatzeko dizkigu. Lau belanauldik elkarrekin bidaia luze hau aurrera eramaten dute. Birramona ezkontza batera gonbidatu dutenez familia osoa Misionerazter abiatzen da panpa handia zeharkatzen. Oso film interesgarria, atsegina eta hunkigarria da.

Standard-en eztanda

Benicassimen eta Italian joko dute **getxoztarrek**



Bilboko Aste Nagusian ere joko du Standard taldeak, Unamuno plazan abuztuaren 27an

Becassingo musika jaialdiak talde sortu berriei begira antolatzen duen “Proyecto Demo” irabazi zuen Getxoko Standard taldeak. Horren ondotik, Benicasim eta Soundlabs (Italia) jaialdietan jotzeko txartela lortu dute, hori baino gehiago, erakusleihu aparta izan da Proiektu Demo eurentzat. *Golden Section 3* abestiko maketagaz aurkeztu ziren lehiaketara eta orain buru-belarri dabilza “El Modulo” lokalean (Grabasonic, Berango) kanta berriak sortzen, kontzertuetarako prestatzen... eta baliteke uda osterako single bat kaleratzea. Dagoeneko hainbat diskoetxeren proposamenak mahai gainean ikusi dituzte, *“baina apurka, suabe-suabe”*

joan gura dute. Taldearen hazia orain dela 8 urte ipini zuten arkitektura ikasle batzuek, eta 2002an taldekide berrien sarreragaz hasi zen taldea umetzen. Gaur 2 bateria, 2 gitarra, baxu eta teklatu joleak osatzen dute Standard, eta kantaren arabera musika tresna bat edo beste jotzen dute taldekideek: Adolfo Gonzalez, Juan Escribano, Jens Wolffersdorf, Deu Txakartegi, Javi Letamendia eta Pablo Orbañanos. Dance-rock, post-punk, dantzatzecko rocka oinarri elektronikoakaz... da euren estiloa eta ingelesez dihardute. Taldearen izena musika egiteko euren moduagaz eta arkiekturagaz daukan loturatik, eta Athleticek Liejako talde hari emandako “jipoitik” dator. ^m

diskoak

Demon days
Gorillaz
EMI



Munduko talde birtualik ezaguenak bigarren disko hau kale-ratu du, lehenengorean (2001) arrakasta itzelaren ostean. Lau marrazki bizi-dunak osatzen dute Gorillaz, baina atzean Damon Albarn (Blur) eta Jamie Hewlett (Dan the Automator) bezalako talentu bi daude. Disko hau benetako irabiagailu musikala dugu: elektronika, raka, popa, rocka, punka... Eta zupu oso ederra ateratu dute.

X&Y
Coldplay
EMI



Azkenean, 18 hilabetez presioa-gaz beharrean egon eta zenbait atzerapenen ostean, Britainia Handiko pop talderik garrantzi-suenak urteko diskorik desira-tuena argitaratu du. *Parachutes* debuta izan zen; *A rush of blood to the head*, beriz, jarraipena; eta hirugarren honegaz, mundu-ko pop musikaren tronuari jesa-ri beharko dira... Edo erantzuki-zen larregi izango ete da Chris Martinen taldearentzat?

Gelditu denbora
Ken zazpi
Gor




Ekainaren 3tik aurrera dendetan daukagu Gernikako talde honen hiru argitar lan. Sekulako jakinmir na sortu du, eta hori asetzera dator. Bilbokoa Kafé Antzokian zuzenean grabatutako disko akustikoa dugu haxe. Mamitsua ere bada: abesti berriez gain (Joseba Sarrionandere olerki bat ere musikatu dute), euren kanta ezagunen moldaketak sartu dituzte. 2006ko udarako disko elektriko bat egin gura dute.

Marinelaren kontrapasa

Marinela,
Zuk beti ezin egona!
Ohetako,
Itsaso gazi urdina!
Teilatutzat,
Zeruko hedoi arina!
Begietan
Izarren argi gordina!
Kulunkari,
Beladun untzi sorgina!

Hargatik, hargatik,
Ez gal gogotik
Zure goait, zure goait
Dagola norbait
Itsas-hegitik!



Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

[liburuak]

Denda erraldoia Bilbon

Elkar Megadenda ireki dute ekainean Bilbon; ondorioz, bertako liburutegia historiko bi itxi ditzuzte

Ekainaren 17an ireki zituen ateak, Bilboko Alde Zaharrean Elkar Megadendak. Izenak izana ematen ei du; ez dakigu zein izan den Elkarrekoen asmo zehatza euren dendaren izenari *mega* gehituz, jakina da-eta aurrizki horrek zelako esangura emoten dion atzetik doakion berbari, merkataritza moten inguruan hainbeste eztabaida dagoen honetan. Kontuak kontu, zabaldu egin da denda berria.

Solairu bi dauzka Elkar Megadendak. Horietan, bisitariak liburu, disko, dvd eta mendirako materiala topatuko ditu, gaika sailkatuta eta teknologia berriei leku eginez. Bigarren solairua, hain zuzen, gauza berezi-tarako gorde dute ume eta gazteentzako literatura -ontzi pirata batez apaindutako espazioan-, mendiari opetzitako atala -men-

«Bisitariak makina bat liburu, disko, dvd eta mendirako materiala topatuko du»

diko materiala, jantziak, liburuak...-, eta *Euskal Gaiak* deritzona. Beheko solairuan, berriz, literatura nahiz musika arloetako no-bedadeak egongo dira.

Megadenda irekitzeaz bat, Alde Zaharreko betidaniko denda bi, Verdes eta Bor da, desagertu dira. Ez guztiz, baina. Izan ere,



www.megadenda.com

bertako langile gehienak, eta liburu eta bes-telako produktuak ere bai, Elkarren proiektu berrira igaro dira.

Bai Borda, bai Verdesen arduradunek ontzat jo dute egindako urratsa. “*Hau beza-lako azpiegitura sendoa behar dugu geure proiektuak aurrea ateratzeko. Alegia, euskal kulturagaz eta aisialdiagaz zerikusia daukana sustatzeko*”, esan dute Verdesko arduradunek.

Zelangura, Megadenda irekitzeak ahots kritiko batzuk iratzarri ditu. Esan dugu hasi-keran *mega* abizenak zelako oihartzunak zabaltzen dituen, eta kasu hau ez da salbues-pena izan. Asko betiko estiloaren desagerpe-naz kexu dira, beste batzuk xurgatzailetzat dauzkate Elkarrekoak. Denborak esango du esan beharrekoa. ^m

liburuak



Bolibakoak zug@tik
Pascual Alapont
Elkar

Maitasuneko eleberriz eozohikoa dugu hau. Batetik, posta elek-tronikozko mezuak osatzen dute liburu osoa; eta bestetik, betiko erromantizismoari ihes egiten dio umorearen eta ironiaren bila. Cristina Londresera doa aitagaz, Ramon mutil-laguna bakamik utzita, baina biak e-postaren bidez egongo dira harremanetan.



Bihotz gosetien kluba
X. Mendiguren Elizegi
Elkar

Oroitzapen eta saiakera kutsuko liburuak idatzi ostean, Mendigu-ren fikziora itzuli zaigu, ipuinetik nobelarako bidean doazen bost istorio idatziz. Bihotzaren gaitz, min eta pozakaz zerikusia dauka-te komedia giroko kontakizunok, batzuk laburrak eta besteak lu-zeagoak, baina denak maitasu-naren inguruan dantzan dabilta.

[kirola]

Emakume borrokalariak

Black Belt kirol elkartean **kick boxing-a eta boxeo**a egiten dute Goizeder, Arantza eta Amaiak



Aurreiritziak alde batera utzi behar direla azpimarratu digute neskok

Million dolar baby filmeko istorioak urrun gertatzen dira (hala espero), baina geurean ere badira emakume borrokalariak, mota askota-ko borroketan dihardutenak, baina oraingo-an kirol-borroka-aren bila abiatu gara, eta ez dugu urruti joan behar izan kirolariok aurki-tzeko. Black Belt kirol elkartean, Euskadiko txapeldunaren, Bizkaiko txapelketako hauta-gien eta beste gizon guztien artean aurkitu genituen, oldartsu haien aurrean, kikildu barik. Hasieratik kick boxing-a eta boxeo kirol moduan ulertzen dutela eta baketsuak direla aitortu dute Goizeder Urrutiko-etxea, Arantza Angulo eta Amaia Nuñez getxoxtarrek. Hirurak bat datoz kick bo-xing-a eta boxeo ukabilkadaka ibiltzea bai-no gehiago direla, eta aurreiritziak alde batera utzi behar direla: “*gorputz osoa lan-tzen duzun kirola da, eta teknika asko ikasi behar duzu*”. Ostera, zera argitu gura dute: “*lehiaketa mailan gogorragoa izan daiteke, baina guk kirola egiteagatik aukeratu dugu*”.

Goizederrekin hasi eta gutxira ostiko ba-ten ostean oina lurrean ipini eta orkatila mindu zuen, “*baina osatu eta bueltatu nin-tzen; orain etxekoan txantxak jasan behar ditut: zer gaur ere jo al zaituzte?*”. Inguru-koek makarroi edo “makarrak” direla esaten dietela dioskue, “*are gehiago emakumeak ga-relako*”. Bestalde, Arantzak azaldu duenez, “*hasieran mutilen taldea harritu egin zen gu han ikustean, baina gero oso jator jokatu dute eta beste taldekide bat gara orain*”.

Boxeo eta baleta eskutik

Boxeoaren ikuspuntua Amaiak eman du: “*dantza, baleta... egin ditut urtetan eta apur bat nazkatuta nengoan; eta aitortu behar dut baletak eta boxeoak zelanbait lotura daukate-la, mugimenduetan-eta. Gainera, adrenalina gehiago erretzen duzu*”.

Clint Eastwoodek aukeratutako izenburua baino getxoxtarrago bat bururatu zaigu guri isto-rio hau amaitzeko: “Kaltea dagianak...” . ^m

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO



350 ^{m²}
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

**TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82**

ETXETOKO ELEKTROTRESNEN KONPON-
Lacofris, s.l. SERVICIO
• MARKA GUZTIAK
• 24 ORDUTAN ERANTZU-
NA
• 3 HILABETEKOKO GARAN-
TIA
• 25 URTEZ ZURE ZERBITU-
& 94 430 52 00 **Kasune, 18 • ALGORTA**

BEROGAILU ETA ITURGINTZA



T: 430 53

Sarrikobaso 15

Eneko Alvarez eta David Fernandez > Xurrut tabernakoak

“Urte asko daroagu kontzertuak antolatzen, eta hori bermea da datozen taldeentzat”



Argazkian, Eneko Alvarez eta David Fernandez

Gorlizko Xurrut taberna historikotzat jo dezakegu, dagoeneko 20. urteurrena du eta. Aitzakia eder horrek bultzatuta, ekainean zehar kontzertu programazio mardula eskaini dute Xurrutekoek. Berezia da Xurrut, oso giro desberdinak aldi berean eta naturaltasun osoz hartzen ditu eta. Asteburuetako kontzertuetara doazen gazteak, ume txikiak dauzkaten familiak, pizza afaltzen doazenak... Xurrut da, beste barik.

—20 urte pizzak eta rokanrola emoten. Holan esan daiteke? —Rokanrola bai, pizzak emoten orain hamaika edo hamabi urte hasi ginen. —Gorliz ez da garai batekoa. Ala bai? —Urteteko era aldatu da. Lehen ohitura handiagoa zegoen Gorliz edo Plentziara zeozer hartzera etorteko. Baina giro gune gehiago sortu da, eta jendea sakabanatuago dabil. Bilbo oso erakargarria da neguan; udan, berriz, orain dela hamabost urte inor ez zen joaten herrietako jaietara, eta orain denak

doaz. Eboluzio bat dago. Izan ere, garaiei egokitzeke hasi ginen pizza emoten. —Gatxa da entzuleak Gorlizera erakartzea? —Neguan nahiko gatxa. Eskaintzaren araberakoa ere bada, ze talde daukagun... —Eta gatxa da taldeak erakartzea? —Egia esan, taldeek Xurrut maite dute. Badaukagu osperik haien artean. Urte asko daroagu musikari lotuta eta kontzertuak antolatzen, eta hori bermea da taldeentzat. Haiek ekartzea gatxa den? Beti esaten dugu sekula inguru honetan ibili ez den Chi-

cagoko talde bat ailega izan bada hona, edonor ailega daitekeela. —Eta zelan lortzen duzue horrenbeste harreman on, bada? —Xurruten ez eze, gutako batzuk musika munduan ere ibili gara eta gabiltza. Diskoetxetan, musika-taldetan... Jendea ezagutzen dugu, eta badakigu nori deitu. Edozelan, taldeek eurek deitzen digute guri euren burua eskaintzeko, guk oso noizik behin baino ez diegu deitzen.

«Kontzertuak, batzutan, sakrifizioa dira guretzat, baina kultura sustatu gura dugu»

—Taberna, azken batean, kontzertuak egiteko aitzakia da? —Inola ere ez. Gainera, tabernaren birika sukaldea da, eta ez musika. Taberna honek aukera jakin batzuk emoten dizkigu, eta gu aukera horiei ahalik eta atarramendurik handiena ateratzen ahalegintzen gara. Kontzertuak, batzutan, sakrifizioa dira guretzat, baina uste dugu hau kulturaren sustapena dela. Ez dugu negoziotzat egiten; bestela, beste era batera egingo genuke. —Kontzertuak ez dira errentagarriak, ala? —Penintsulako edozein aretotan, taldeek antzezlekua eta soinu-ekipoa alokatu behar dituzte. Gurean ez. Eta sarreraren dirua osorik emoten diegu. Baina leku askotan, dirua irabazteko besterik ez dituzte antolatzen kontzertuak: ekipoa alokatu, lekua alokatu... Baldintza gogorrak dira taldeentzat. —Baina orduan, taldeek ez dute diru-truk jotzen?

—Ez. Jo gura dutelako jotzen dute, hori da eta gustokoen dutena. Gatxa da musikari esker bizi den talderik topatzea. Eta bizi diren gitxi horientzat, gure tabernak ez dauka behar bezalako ezaugarriak. m

Esakere > “Burue txapela ibilteko bakarrik ezta”



Irudia: Gorka Vazquez

Txapela iminite eroteko baiño zeozer gehiagorako dala buru esaten dako askori, zeozer lar pentsa barik egiten daunen. Nok ez dogu hori esan edo entzun! Ahalegindu bere egiten gara buru behar dan legez erabilten, baia beti eziñ, ugari direz eta, egunero-egunero pilletuten dakuzen ardurek... Dana ondo pentsate ez da erraz, baia hori bai, ia sikan kapaz garan irudiko lagunek baiño hobeto erabilteko buru!

Esakera hau G. Garatek baturiko da eta beran “Atsotitzak” bilduman topako dozue.

Gureberbakere62

Testua: Xabi Bilbao

BERBA JATOR BATZUK (XM)

Berbakere 59n eta aurreko beste batzuten izenondo batzuk ikusi genduzen, gure eskualdeko euskeran sarri erabilten direzenak. Gaur beste berba mota batzuk ikusten hasiko gara, esangure aldetik edo itxure aldetik berezi direzenak. Hasteko, berba batzuk aitetuko doguz, maileguk direzenak (hau da, erderatik harturiko berbak) baia gure euskeran aspalditik eta modu jatorran erabilten direzenak: jatorriz erderako berbak badire bere, euskeraz erderak galdute dekon esangureaz erabilten doguz, edo sarri, erderaz ez dauken esangure baten, hau da, mailegu asko bertokotute dauz, edo euskerako eginte, itxure aldetik ez bada esangure aldetik. Adibide onak direz *akordu* (iz.) eta *gobérna* (ad.). Bai baten eta bai besten esangure nagosi ez da erderaz erabilten dana. Hamentxe argituko dogu hau, eta ganera adibide gehiago ikusi:

• **akordu (iz.):** sarri ‘idea’ edo ‘burutada’, ‘okurrentzia’ esateko erabilten da. —*Eskuten atrápaten dáune bentánetik bóta in ber! Horrek umek ezteko akordu onik!* —*Pizza yan gosálduteko? Zuok dekozuez akórduk!*

• **gobérna (ad.):** agintárik eta gobernuk egiten daudena da goberna(tu), bai, baia gure euskeran sarri ‘zaindu’ edo ‘jagon’ esanguran erabilten da, batez bere abereakaz eta gauzakaz. —*Horrek morroiek béhiek badekoz, baia eztauz ondo gobérnaten.* —*Solo gobérna barik auki ezkéron jénero gitxi atárazoku.*

• **amánte (iz., izlg.):** Pertsoneri, eta batez bere umeri, maitasunegaz berba egiteko erabilten da, ‘laztan’ esanguragaz. —*Miñ in dozu amánte? Ai ene, zátoz ámamagaz!*

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 4302345

Algorta

Arasa

Sukalde eta Komunetarako
Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen
zaharberritzeak eta
dekorazioa

Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta
Tel/Fax: 94 430 11 91

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GARBK



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / basalbokoa

Erromes-maskorak

pikillo piper saltsarekin

Erromes-maskor, gaztelaraz *vieira* izenez ezagutzen den moluskuari izena emateko euskaraz erabiltzen dugun berba duzue. Oso zapoetsuak eta gozoak dira erromes-maskorak, eta zer esanik ez, oso garestia ere bai.

Hasteko salta egingo dugu. Ipini sutan oliba oliotan pikillo piperrak, egiten direnean esnegaina gehitu eta irabiatu; salta laranja bat lortuko dugu. Bestetik, zartaginean perretxikoak salteatu. Erromes-maskorak erditik zatitu, gatz-pipertu eta zartaginean buelta eta buelta egin. Gutxi egin behar dira, bestela sikatatzen dira eta. Platera aurkezteko ipini salta bazter batean, gainean perretxikoak eta alboan erromes-maskorak. On egin!

Gogorazi nahi nizuen molusku honekin entsalada epel ikaragarriak egin daitezkeela. ^m

osagaiak (bi lagunentzat)

sei erromes-masko • lau pikillo piper • esnegaina • 200 gramo perretxiko



itsaso arana / jolastokikoa

Udarako

ardaoak eta beste edari batzuk

Uda, eta berarekin batera beroa eta hezetasuna heltzen direnean, jeneralean atseginagoak egiten zaizkigu ardao freskoak eta arinagoak. Uda kanpoan pasatzeko asmoa baldin badaukagu, komenigarria eta gainera ohitura ona ere bada bertako edariak probatzea. Herrialde guztiek daukate euren edari freskoa. Esaterako, Asturiasen sagardoa; gurean txakolina; Andaluzian *manzanilla*, *finoa* edota *barbadillo*; eta Galizian, *albariño* edo *ribeiro*. Zerrenda amagabea da. Esaera zaharrak dioenez: gorostian gorosti eta Donostian Donosti.


Bestetik, kaba berez hotza denez, oso erraz edaten da eta udan, gainera, alaigarria ere bada.

Ardao baltza edateari uzteko asmorik ez daukatenean edozein jatorri izendapeneko urteko ardao edan dezakete, apur bat fresko edan daiteke eta. Kriantzak ez dira astunak eta edatera gonbidatzen dute.

Jan aurretik, hau da, aperitibo moduan, apur bat ahaztuta dauden ohizko sifoi ardao edo *vermoutha* har daitezke, gure aho-sabaiak beti eskertuko ditu.

Hala ere, beroari aurre egiteko onena norberari on egiten dioten edariak hartzea da beti.

Neurriz edan eta uda ona pasa! ^m



Garai kafetegia

la 25 urtez kafea mimatzen Getxon



Jabitzuk, Lourdesek eta Jonek (Eugeniogaz batera) lan-talde bikaina osatzen dute

Goizean, arrastian, gauean... Egunean edozein unean jendez gainezka egoten da Garai kafetegia. *"Paseatzeko gune batean egoteak lagundu egiten du. Gainera, lagun askok ezagutzen gaitu, urte asko daramatzagu-eta"*, dioskue Jon Garai algortarrak eta bere emazte Lourdes Avila bilbotarrak. 1981eko urtarrilean paratu zuten janaridenda txiker bat Andra Marin. Urteek aurrera egin ahala, haziz joan zen, ondoko garajea hartu eta kanpoko terraza handiagotu zuten arte. *"Neurri batean, auzoaren hazkundearen lekuko izan gara hemendik. Lehenengo urte haietan etxe gutxi zeuden inguruan, eta taberna are gutxiago. Ia bakarrak ginen"*.

Kafezale amorratuak badakite nora joan kafe on bat dastatzera. Esan digute-

nez, badaude Deustutik eta Areetatik etortzen direnak egiten duten kafeagatik. *"Gure funtsa horixe izan da beti"*, dio Jonek. *"Oso garrantzitsua da ehoketari puntua hartzea"*. *"Eta ondo atena gura izatea"*, gehitu du Lourdesek. *"Oso azkar, poliki edo gaizki ateratzen bazaigu, harraskara doa kafe hori"*. Hainbeste urteren buruan, bezeroen gustuak (eta maniak) ezagutzen dituzte, eta badakite zelakoa egin behar duten. Garairen beste ardatza pintxoak dira (batez ere asteburuetan) eta horiek ere jendearen gustuaren arabera prestatzen ditu Lourdesek. Egunero zabaltzen dute (abuztuan izan ezik), 8:30etik 23:30era. ^m

Garai kafetegia
Aingeruaren etorbidea, 3 - Getxo

gOZOLABEA

galdaretxe

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokor-
na
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bidebarri 27, behea eskua
ALGORTA
94 94 430 76 96



san inazio

autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA



aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa / Ameiti 6, 4. solairua
48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz
tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!

Ameiti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

eleizalde
taberna
eguneko menua

Kresaltxu 13
T: 94 602 14 33 - ERROMO-GETXO

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

Lacofris, s.l. SERVITEC

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKOKO GARANTIA

& 94 430 52 00 **Kasune, 18 - ALGORTA**

Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO



BATIZ KRISTALDEGIA

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA



VIEJO

kopak eta
giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

Zure publizitatearen herria
Zure publizitatearen herria
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37



GOIZEAN

“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarrieriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia oroko-
na
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bidebarri 27, behea eskuina
ALGORTA
94 94 430 76 96



[horoskopoa]



URA
t

(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Gauzak ganoraz egiteak berez dauka ordainsaria. Muturtuta sukaldatutako babarrun batzuk ez daukate goxokiro egin-dako batzuen zapore berbera, halan diote. Horregatik ekin beharri gogotsu, umore onez, emaitzak ere hobeak izango dira-eta.



OTSOA
t

(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Hitzordua duzun bakoitzean berandu heltzen zara, beti. Erlojua bost minutuz aurreratu zenuen orain dela gutxi, baina alferrik. Orduan heltzeak besteeikiko errespetua adierazten duela diote. Orduan noiz helduko zaren itxoiten gaude!



ADARRA
t

(Otsailak 19 martxoak 20)
Herrian zure inguruko txutxumutxuak ei dabilteza. Betiko marmartiak aspertu antzean ibiliko dira, beste egitekorik ez daukatela. Kasurikpez! Bihar beste norbaiten kontura jarriko dute mingaina dantzari. Bakoitzak berea... hori ulertuko balute?



AITZURRA
t

(Martxoak 21 apirilak 19)
Egunak 24 ordu, eta 24 orduak bete artean ez da hurrengo eguna helduko. Sasoiari sasoikoa. Goiz ala berandu biziko duzu horrenbeste desio duzun hori, baina momentuz, lasai itxaron, besterik ezin duzu egin.




HOSTOA
t

(Apirilak 20 maiatzak 19)
Gizakia ei da harri berean birritan tronpatzen den bakarra. Zuk hirugarrenean ere estropozu. Zenbatetan egin beharko duzu laprast? Batzuek lehenengoan ikasten dute, beste batzuek... Hobe duzu berandu baino lehen lezioa ondo ikastea.



EGUZKIA
t

(Maiatzak 20 ekainak 18)
Urte osoan egindako lanak merezitako deskantsua edukiko du laster. Oporretara nora joango zaren erabaki al duzu? Oraindino ez? Baina ez ahaztu, ez da urrutira joan behar oporraldi on batzuk igarotzeko.



GARIA
t

(Ekainak 19 uztailak 18)
Gehiago ikasi beharko luketela, beharriari gogotsu ekin behar lioketela, etxeko beharrak egiten gehiago lagundu beharko luketela... Eta zuk? Zeure gomendio eta iritzien arabera jokatzari ahal duzu? Inorena ikusteko argitsu, berea ikusteko itsu.



LASTOA
t

(Uztailak 19 abuztuak 17)
Gutxien uste duzunean hurbileko norbaitek ezusteko ona emango dizu. Asko pentsatu barik esaziozu baietz, ez eduki zalantzarik zer edo zer proposatuta ere itzela izango da-eta. Urzi dena bere arduraean, eta gozatu!




IRATZEA
t

(Abuztuak 18 irailak 16)
Egunerokoak itota ibili zara oraintsu arte. Baina eguna luzatzen doa eta gauzak egiteko tartea zabalagoa da. Hartu zeuretzako denbora: paseorako, irakurtzeko, igerilekura, mendira edo hondartzara joateko... Ez zaitezala egunerokotasunak menderatu!




META
t

(Irailak 17 urriak 16)
“Guztia gura izatea, guztia galtzea”, esakerk hala dio. Daukazu apurragaz zoriontsu izaten ikasi beharko zenuke, ez da hain gaxa! Eta gainera, den-dena edukitzea ezinezkoa da, beti egongo delako ez daukazuun zeezer!



HAZIA
t

(Urriak 17 azaroak 15)
Bueltatara ematen dizkiezu gauzei, lantzean behin gauzak pentsatu barik egin beharko zenizuke. Arrazoimena ez litzateke gizakiaren eguneroko gidari izan behar, noizean behin utzi iezaiozu olatuari berak gura legez eramaten.



NEGUA
t

(Azaroak 16 abenduak 20)
Alaitasun kutsakorren ugazaba zara, zu pozik bazabiltza ingurukoak ere laster alaituko dira. Besteak pozteko ez bada ere, egizu barre! Eta haiek pozuz gero, baliteke zeu ere poztea... eta holan denak pozik!



mun-gia
oKINdegia

Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin

1. Auzokoa, aldamenekoa. 2. Olariak. 3. Lapurdiko herria. Burdinbidea. 4. Hiri barruko errepideko tren. Ogi, hitz elkarketan. 5. Eite, itxura. Azkenekoa eta lehenengoa. Sufrea. 6. Ipar, zirikatua. 7. Oxigenoa. Metal estimatua. 8. Urrea. Zaldiak mugiarazteko interjekzioa. Bostehun. 9. Ebazpen. Gizon izena. 10. Intsektu nazkagarria. Gipuzkoako herria.

Goitik behera

1.Esku. Ukatzeko. 2. Gaueko argi. Batrazio ezaguna. 3. Zaraitzuko. 4. Nafarroako Bortziritako herria. Iridioa. 5. Berrogeita hamaika. Bigira, gaualdi. Iodoa. 6. Igarle. Mapa. 7. Laudorio, gorespen. 8. Momentu, lipar. Musika-partituren euskarria. 9. Ipotx, ñaño. Arabako alderdi politikoa. Musika nota. 10. Hutsa, desegokitasuna. Joaki da.

Soluzioak

A	I	A		V	I	R	H	O	Z
O	L	E	T		I	P	A	I	E
D		I	R	A		U			
A	R	A	V	L	I	Z		O	
A	U	T	V	K	I	Z	T	K	
S		A	Z		E	T	I	G	E
T	O		A	I	B	A	N	T	R
V	N	E	R	T		V	A	R	A
K		N	O	Z	I	G	V		O
A	N	G	V	L	I	Z		B	I

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Taula honek hamaika beltzune ditu

asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- Algortarra da
- Gurpil biren gainean irabazten du ogia
- Danon ahotan ibili da azken boladan

> Aurrekoaren erantzuna: Jon Idigoras

> Irabazlea: **Begoña Lezamiz Etxebarria (Asua)***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

•Argia astekariaren hiru hilabeteko harpidetza doan



•Freexkue liburua

www.argia.com



JESUS GANBOAK UTZITAKO ARGAZKIA

Berangoztarrak Sopelanako jaietan, 1958

Dagoeneko udabetean gaude, eta beraz, jai giroan murgilduta. Horregatik antzinako koadrila baten erretratua ekarri nahi izan dugu *Flash back* atal honetara. Lehen, gaur egun bezala, ohitura zen lagun taldeak herririk herri eta jairik jai ibiltzea. Argazkian agertzen direnak berangoztarrak dituzue, Sopelanako 1958ko sanpedroetan. Guzti-guztiak, jakina, dotore-dotore jantzita eta ondo orrraztuta; izan ere, badakigu jaiak beti izan direla bikotekide aurkitzeko gune egokia.

Bestetik, eta argazkian ondo ikusten ez bada ere, *Salon de tiro santurzano* zena igar daiteke. Txinberagaz tiro egiteko denborapasarako txosna ibiltari hau garai hartan oso ezaguna izan zen, eskualdeko herrietako jai gehienetan paratzen zuten eta. m

Zutunik: Faustino Uranga, Ramon Bilbao, Angel Zarzuelo.

Makurturik: Anis Agirre, Jesus Ganboa, Jose Luis Madariaga (GB).

*Atal honetan ateratzeko argazkirik badaukazu, ipini gurekin harremanetan: 94 491 13 37

cianoplan
global printers

Reprografia

Vila de Plentzia 6. zbk
Antigua Goll - Getxo
Tlf. 944 649 067
944 648 691
http://www.cianoplan.es

- Imprimatze eta plano kopiak
- Kartelak kolorez eta z/b
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua
- Fotokopiak kolorez eta z/b
- Era desberdinetako koadernaketak
- Plastifikazioak
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak
- ermarkaketak



RAMON GARCIA > aurkezlea

“Oso pozik nago *Ramontxu* izaten”

Testua: **Jon Urresti** / Argazkia: **Victor Cucar**



Defini ezazu zeure burua berba bitan? Pertsona zintzoa.

Zein animaliagaz zatoz bat?

Txakurrak ditut gustuko. Hamaika urtez artzain ingeles bat eduki nuen, baina hil zenetik ez dut besterik eduki. Oso gaizki pasatzen duzu ez daudenean.

Zein liburu gustatuko litzaizuke idaztea?

Gabriel Garcia Marquezen *Cien años de soledad*. Argitaratu zenean, ikasturte osoa eman genuen liburu horregaz ikastetxean. Harrezkeroztik, zortzi edo bederatzi aldiz irakurri dut, eta beti topatu izan dut zerbait berria. Hain da mamitsua...

Eta zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papela?

La lista de Schindler eta *Salvar al soldado Ryan*. Atsegin ditut Bigarren Mundu Gerran girotutako pelikulak.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien? Gurasoak.

Zure jakirik gogokoena.

Amaren makarroiak, Patricia emaztearen gazpatxoa, eta nik neuk prestatzen ditudan marmitakoa eta makailua pil-pil erara.

Aitor dezakezun bizio bat? Bizio txikiakaz gozatzen dut: ardo ona lagunakaz...

Oporretara joateko lekurik aproposena.

Euskal Herria. Beharra dela-eta sorterritik kanpo denbora asko ematen duzunean, itsasoaren eta mendiaren hutsunea sentitzen duzu.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?

Beti barkatzen dut, baina ez dut ahazten.

Ezin zaitezke bizi...

Natalia nire alaba barik. Guraso guztioi gertatzen zaigu.

Ohitura txarren bat... Dena bere lekuan egotea gustatzen zait.

Zertan gustatuko litzaizuke haragitzea?

Oso pozik nago nire bizitzagaz, Ramontxu izaten.

Zure azken erokeria.

Emaztea Las Vegasera gonbidatu dut Elton Johnen kontzertu bat ikustera. m

LABURREAN — Azken urteotan bere kapa Gabonetako irudirik tipikoena bihurtu da. Eta aurkezten duen *Grand Prix* delako erromeria erraldoiak uda heldu dela gogorarazten digu urtero. Ramon Garcia (Bilbo, 1961) 12 urtegaz hasi zen beharrean gurasoek Sodupen zeukaten diskotekan: “*Ikasle kaskarra nintzenez, diskoak ipintzera zigortu ninduten. Ia ez nintzen ailegatzen disko-jogailuetako plateretara*”. Txiripaz hasi zen irratian, disko-jartzaile lehiaketa bat irabazi zuenean. Radio Bilbaon eta Radio Euskadin makina bat saio egin ostean (30 urte inguru dauzkagunok oraindik gogoratzen ditugu *Pequeños principales*, *Txorromorropikotalloke* eta *La merienda* irratia), telebistara egin zuen jauzia. Bertan den moduan agertu ohi zaigu: lagun xalo eta sinpatikoa. Ez ditu plantak egiten, zin dagigu: aurrez aurre ere horrelakoa da. Ia 15 urte daroaz TVEn. Ekainaren 15ean *Grand Prix* saioren hamaikagarren denboraldiari ekin zion (entretanimenduzko programarik beteranoena daukagu), eta aldi berean domekero magazin luze baten ardura dauka Punto Radio irratiari. Domekak, udak eta Gabon zahar gauak. Gustatuko al litzaioke gure Ramontxuri behar egitea besteok behar egiten dugunean?

